

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXV. edizioa

2

0

2

3



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXV. edizioa

2 0 2 3

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposizioa eta Fotomekanika:

Tecnigraf, S.L.L.

Inprimatzailea:

Tecnigraf, S.L.L.

Lege Gordailua: BI 00615-2023



Zorionez, balioek garrantzi handia dute gure gaztetxoentzat. Haxe islatu da, behinik behin, ondorengo orrialdeetan irakurgai dituzuen ipuinetan. Adiskidetasuna, errukitasuna, enpatia, zintzotasuna eta ausardia dira ipuinotan ageri diren balioetako batzuk. Errespetua da beste bat, inguruko pertsonetikiko zein ingurumenarekiko errespetua.

Esku artean duzuen argitalpen honetan bildutako testuak eguneroko hainbat jokabide eta jarrerak eragindako ondorioen erakusgarri dira.

Aurten, bestalde, gure gaztetxoak oso gai lazgarrien gainean idatzi dute: anorexia, jazarpena, gerra, heriotza... Testu gogorrak dira, jota uzten zaituzten horietakoak. Balioko ahal dute guztion kontzientzia piztu eta gogoeta eragiteko!

Horrez gain, gure historian betiko iltzatuta geratu den gertaera baten kontaketa hunkigarria bildu da: 1937ko apirileko Gernikako Bonbardaketa. Arrietako bi lagunek egun horretan bizi izandakoak batu dira bertan.

Badira, noski, abenturazko ipuin fantastikoak, gure haur eta gaztetxoek sormena ageri-agerian uzten dutenak.

Amaitzeko, beren-beregi azpimarratu nahi dut ikasleek duten hausnarketarako gaitasuna, ipuin asko barren-barrenetik idatzita baitaude. Ez da erraza norbere sentimenduak hain zehatz eta, era berean, horrelako sakontasunez adieraztea.

Zorionak guztioi.

Juan M^a Aburto
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren hogeita zortzian, arratsaldeko bostetan, epaimahaiburua, epaimahikideak, idazkaria eta Labayru Fundazioaren idazkaritza teknikoa batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXXV. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 1004 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. ROSITAREN BIDAIA
Ian Joao Zan
Zamakola-Juan Delmas HLHI
2. HERRIAREN BIHOTZA
Malen Sagarna Villanueva
Karmelo Ikastola IPI
3. AITONAREN SEKRETUA
Eztizen Basterretxea Sánchez
Kirikiño Ikastola HLBHIP

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. JON ETA ZUHAITZ MIRAGARRIA
Amaia Montegui de la Mora
La Salle Bilbao HLBHIP
2. DEABRUEN MENDIKO MISTERIOA
Lili de Quadra de Pedro
Abusu Ikastola HLBHIP
3. ZEROTIK HASTEN
Irati Barrena Ibarrondo
Deustuko Ikastola IPI

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. HEGAN EGIN NAHI ZUEN UMEA
Leire Ramil de Lucas
San Adrian BHI
2. ARRASTO URDINXKA
Cynthia Rioja de Diego
Artxandape Ikastola HLBHIP
3. BIZITZAREN SEKRETUAK
Aiur Onaindi Bilbao
Karmelo Ikastola IPI

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. ETA EZ BAZAUDE?
Uxue Aramburu Rodríguez
Ikasbide HLBHIP
2. ARTEZ BETETAKO HILKETA
Mikel Ortiz Ramírez
San Adrian BHI
3. MAMUTZAT HARTU NAUTE
Raquel Valle Monsalve
San Adrian BHI

MIKOLETA - BILBAO BALIOEN HIRIA

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

EUSKAL IKURRAREN SALBATZAILEA
Elene Uriguen Etxebarria
Deustuko Ikastola IPI

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

BURUNDIKO UMEA
Zuriñe Bergaz Garay
Artxandape Ikastola HLBHIP

ARGITARAGARRIAK

A KATEGORIA:

- ASKATASUNA NAHI ZUEN BALEA, Irati Quevedo Garmendia, Karmelo Ikastola IPI
- AMETS BATEN BILA, Haizea Lasuen Elguezabal, Karmelo Ikastola IPI

B KATEGORIA:

- LAU ERRUGABEEN MISTERIOA, Garat Sagastasoloa Herrera, Abusu Ikastola HLBHIP
- GAUZAK ALDATZEKO ORDUA, Unai Ibarretxe Fernandez, Karmelo Ikastola IPI
- ELKANOREN ILEORDEA, Udane Pena Martínez, Intxixu Ikastola HLHI

C KATEGORIA:

- ELUR MALUTAK, Ane Jiménez Calvo, Ikasbide HLBHIP
- BILBOKO ONTZIOLEN SEKRETUA, Elena Calvo Basterra, Ikasbide HLBHIP

D KATEGORIA:


- DALTONIKOA, Erika Jabbar, Ikasbide HLBHIP
- AMETSEN EGUNKARIA, Eric Jiménez Méndez, San Inazio BHI

Eta batzarra bukatutzat eman da, Bilbon, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren hogeita zortziko arratsaldeko seietan.

Koldo Narbaiza Olaskoaga, epaimahaiburua

Ziortza Artabe Etxebarria (Labayru Fundazioa), idazkaritza teknikoa

<i>Lutxo Egia del Rio, epaimahaikidea</i>	<i>Mikel Etxaburu Osa, epaimahaikidea</i>
<i>Irune Urrizelki Berro, epaimahaikidea</i>	<i>Txani Rodriguez Hernandez, epaimahaikidea</i>
<i>Juan Ramón Madariaga Abaitua, epaimahaikidea</i>	<i>Maite Santiago Garabieta, epaimahaikidea</i>
<i>Goizalde Landabaso Etcheverry, epaimahaikidea</i>	<i>Galder Urzaa Arrien, epaimahaikidea</i>
<i>Eneko Zuloaga San Román, epaimahaikidea</i>	<i>Nagore Layuno Gerrikagoitia, idazkaria</i>



A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



ROSITAREN BIDAIA

Ian Joao Zan
Zamakola-Juan Delmas HLHI

Bazen behin frutaz beteriko herri txiki bat; Lilifrut. Bertan, mota askotako fruta bikoteak bizi ziren: laranjak, sagarrak, gereziak, mahatsak... Gure laguna, Rosita marrubia, ere bertan bizi zen. Oso fruta jatorra zen, adiskidetsua eta bihotz handikoa; baina, herriko marrubi bakarra zenez, triste zegoen eta desberdin sentitzen zen. Gainera, beste herritarrek barre egiten zuten bakarrik zegoelako, eta negar asko egiten zuen.

Egun batean, nekatu egin zen, eta bidaia bat egitea pentsatu zuen. Bikotekidea aurkitu nahi zuen! Gauza guztiak motxilan sartu –dirua, ura eta janaria– eta Lilifrutetik joan zen.

Bidaia luzea izan zen. Lehenengo geltokia merkatu usteldua izan zen, eta bertan, Popotxo banana ezagutu zuen. Nahiz eta itxura txarra izan kanpotik –kolore marroia zuen, eta, punta zabalik–, jatorra zirudien; eta bakarrik zegoenez, Rosita berarekin hitz egiten hasi zen.

—Kaixo, Rosita naiz —esan zuen Rositak.


—Kaixo, Popotxo merkataria naiz, pozten naiz zu ezagutzeaz —erantzun zuen bananak.

—Merkataria? Eta zer saltzen duzu? —galdetu zuen harrituta.

—Objektu magikoak —esan zuen barrezka—, eta ziur nago objektu perfektua dudala zuretzat. Zergatik ari zara bidaiatzen?

—Nire bikotekidearen bila nabil. Nire herriko fruta guztiak bikoteka bizi dira, eta ni bakarrik nago, ez dago beste marrubirik —esan zuen Rositak triste.

—Ene! Bada, zuretzako gauza egokia daukat hemen: kandela bat. Kandela hau benetako maitasunetik gertu zaudenean pizten da.



—Benetan? Eta, zer eskatzen duzu horren truke?

—Motxilan dituzun gauza guztiak nahi ditut.

Rositak, asko pentsatu ondoren, baietz esan zuen; eta, motxila gabe, baina kandela magikoarekin jarraitu zuen bidaian.

—Kar-kar-kar —barre egin zuen Popotxok, Rositak alde egiten zuen bitartean—. Engainatu egin dut. Kandela hori ez da magikoa, eta bere gauza guztiak ditut nire eskuetan.

Rositak, ezer jakin gabe, bere bidea egiten jarraitu zuen. Oso pozik zegoen, eta kantari joan zen. Baina, halako batean, bidegurutze batera heldu zen eta zein bide hartuko zuen erabaki behar izan zuen: etxejaun fruta jalearen zubia edo elfo jatorraren zubia. Gure lagunak ez zekien zer egin; eta, kandela eskuan zuenez, hori



erabiltzea pentsatu zuen: argia pizten den bidea hartuko zuen. Nahiz eta Popotxok esan ez zela magikoa, ez zen horrela izan: bera maltzurra zen, eta berari ez zitzaion pizten. Rosita, aldiz, oso fruta ona zen, eta, merezi zuen bere maitea ezagutzea.

Kandela bi bideetan probatu ondoren, etxejaunaren zubitik joan behar zuela konturatu zen; baina, beldur zen. Bidea iluna zen, eta, izenak ere ez zuen laguntzen.

Rosita zubia pasatzen hasi zen, eta, erdian zegoenean, Truppty beldurgarria agertu zen.

—Truppty fruta jalea naiz, eta hau nire zubia da! —esan zuen etxejaunak haserre—. Ezin zara hemendik pasatu!

Rosita dardarka hasi zen, ez zekien zer egin.

—Ze...ze...zer na...hi duzu? —galdetu zuen marrubiak beldur handiz.

—Pasatzeko asmakizun hau ondo erantzun behar duzu. Txarto erantzuten baduzu, jan egingo zaitut. GOSE NAIZ!!!! —esan zuen oihuka.

—Ba...bale, ongi d...da. Zein da asmakizuna?

—Kobazulo hori beti dago heze, hesi zuriz inguratuta dago, eta bertan herensugea bizi da. Zer da?

—Mmmmm... ahoa?

—Ondo dago, pasa zaitezke —esan zuen Trupptyk harrituta eta triste—.

—Hara!!! Ze ondo! Eskerrik asko, Truppty. Ez dut ezer zuri emateko, kandela hau bakarrik, eta nik behar dut; baina besarkada bat eman ahal dizut. Nahi duzu?

Lagunik ez duelako da maltzurra Truppty. Orain, Rosita ezagutu du; eta frutak jatorrak direla konturatu da, baita nahi duena bere zubitik pasatu ahal dela ere.

Zubia pasatu ondoren, lore erraldoien lorategira heldu zen, eta kandelak gero eta argi gehiago zuen. Bere maitearengana hurbiltzen ari zen. Bertan, loreak oso-oso handiak ziren: arrosak, tulipak, ekiloreak... Ez zen ia ezer ikusten, baina, itzal bat ikusi zuen eta atzetik ukitu zuen. Bira egin zuenean, koko bat zela ikusi zuen.

—Kaixo, marrubirik ikusi duzu hemen? —galdetu zion Rositak.

—Ez... —erantzun zuen kokoak triste—. Ni Bolitxe naiz, eta zuk kokorik ikusi duzu?



—Ez, zu ere bikotekidearen bila zabilta?

—Bai, eta oso triste nago ez dagoelako koko gehiago.

Bat-batean, Rositak kandelari begiratu zion, eta argia oso distiratsu zegoela ikusi zen.

—Ze arraroa! —esan zuen Rositak—, hau nire benetako maitearekin nagoenean argitu behar da. Zer esan nahiko du horrek?

—Agian, kandelak biok elkarrekin egotea nahi du. Agian, zu zara nire bikotekide perfektua —esan zuen Bolitxek.

Hitz egiten hasi ziren, eta Rosita azkar konturatu zen Bolitxe oso fruta jatorra, barregarria eta bihotz onekoa zela, hau da, bera bezalakoa. Lagun oso onak egin ziren, eta Lilifruitera joan ziren bizitzera lagun-bikote bezala.

Oso pozik bizi izan ziren betiko, eta konturatu ziren benetako maitasuna lagunek ere eman ahal dutela.

HERRIAREN BIHOTZA

Malen Sagarna Villanueva
Karmelo Ikastola IPI

Orain 2000 urte baino gehiago, mundua zeharo ezberdina zenean, bazen Sua izeneko neska bat. Egunero lagunekin batzen zen, egun osoa jolasean ibiliz ikasten zuten; eta etxera bueltatzen zenean, familia handi baten babesaren sentitzen zuen. Halere, bazegoen egiten zutena baino gauza baliotsuago bat: komunikatzeko erabiltzen zuten hizkuntza. Hizkuntza hori euskara zen.

Euskara gabe herri horretan bizi ziren guztiak ez ziren bizirik egongo. Euskara erabiltzen zuten lagunekin hitz egiteko, familian kontu kontari aritzeko, ehizan joateko, jolasteko... Euskara herriaren bihotz osasuntsua zen.

Egun batean, Mari jainkosak herrixkaren etorkizuna ikusi ahal izan zuen, bere boterearen bidez: euskara, haien altxorra, galtzeko zorian egongo zen!

Orduan, Marik eta herrixkako gainontzeko sorginek herritarrak bizkor biltzea erabaki zuten. Marik ikusitakoa azaldu zien, eta denak oso triste jarri ziren. Arduratuta, zer egin pentsatzeari ekin zioten. Pentsatu eta pentsatu aritu arren, inori ez zitzaion ezer bururatu.

Sua eta bere lagunak ere atsekabe handia zuten, eta egunero egiten zituztenak nekez egiten zituzten. Haien geroa arriskuan zegoen. Egun batzuk geroago, halako batean, Suari ideia bikaina bururatu zitzaion. Haien metalik preziatuena erabiltzea eta bertan mezu bat idaztea ondorengoentzat. Orduan, Sua eta bere lagunak metalean

zein mezu idatzi pentsatzen hasi ziren. Guztien artean erabaki zuten: “zorionekoak izango zarete, euskara beti bihotzean badaukazue”.



Denak lanean hasi ziren, eta hamar esku idatzi eta margotu zituzten. Handik bi egunetara, hamar eskuak Euskal Herrian zehar ezkutatuta zeuden. Oso urduri zeuden ez zekitelako ondo aterako zen, baina ez zuten esperantza galdu nahi, horixe omen da-eta azkena galtzen.

AITONAREN SEKRETUA

Eztizen Basterretxea Sánchez
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Aste bat pasatu zen Ainararen amona hil zenetik, eta bere ama askoz hobeto zegoen. Ainara, Iker eta ama amonaren etxera joan ziren. Amonaren etxea Gorbeia mendian zegoen, zuhaitz erraldoien artean ezkutatuta. Txikitan, zuhaitz horietan, Ainararen ama eta izeko Edurne jolasten ziren. Zuhaitz zaharraren enborren artean aitona egindako etxola oraindino tente zegoen. Ainarak bere aitona ez zuen ezagutu, baina amonak beti esaten zuen aktore elegante baten itxura zuela.



Amonaren etxera ailegatu zirenean, izeko Edurne eta bere lehengusu-lehengusinak, Eder eta Sara, bertan zeuden itxaroten. Ainara, Iker, Sara eta Eder goiko pisuko gelak kuxkuxeatzen hasi ziren. Guztia zegoen betiko lekuan, amonak utzi zuen bezala. Ainarak amonaren gelako kaxoi batean egurrezko kutxa zahar bat topatu zuen, eta antzinako argazkien artean gutunazal zahar bat. Barruan mapa baten zati bat zegoen.

Aurkitutakoa besteei erakutsi zien, eta falta zen zatia guztien artean bilatzea erabaki zuten. Ainara eta Iker ganbarara igo ziren, eta Sara eta Eder beheko solairura. Eskailerak jaisten ari zirela, Eder bihurria saltoka hasi zen eta hanka sartu zuen azkenengo eskaileran. Sarak, laguntzera joan zenean, beste egurrezko kutxa bat topatu zuen eskailera barruan ezkutatuta. Sara urduri jarri zen eta Iker eta Ainarari deitu zien. Kutxa ireki zutenean, maparen beste aldeak aurkitu zuten. Mapan amonaren etxea eta ingurua agertzen ziren. Atzeko partean aitonak amonari bere momentuan idatzi zizkion lerro batzuk, baina ez zen argi ikusten zer jartzen zuen. Hori bai, ondo ikusten zen aitonaren sinadura eta Estatu Batuetako gobernuaren zigilua. Izan ere, aitona Estatu Batuetan egon zen lanean denboraldi batez, baina amonak ez zekien zertan.



Maparen bi zatiak elkartu zituzten eta guztion artean deszifratzen saiatu ziren. Gauza bat bakarrik geratu zen argi: aitonak egindako etxolan zerbait zegoen, baina ez zekiten zer. Gaua heldu zenez, etxolara hurrengo goizean joatea erabaki zuten; baina ama eta izeko Edurne hizketan harrapatu zituen Ainarak. Hurrengo egunean etxola botako zutela komentatzen ari ziren. Gelara joan zen eta besteei kontatu zien entzundakoa; eta etxolara gauean joatea erabaki zuten guztion artean.

Ainararen ama eta izeko Edurne loak hartu zituenean, linternak hartu eta etxetik atera ziren. Ainara beldurtia zenez, zaratak entzuten zituenean, urduri jartzen zen. Horregatik, besteen laguntza behar zuen iluntasunean mugitzeko.

Etxolara heldu zirenean, ez zegoela eskailerarik konturatu ziren. Orduan, Sarak ideia bat izan zuen: lauren artean dorre bat egitea. Nagusienak azpian jartzea, eta Iker, txikiena eta ausartena zenez, etxolara sartzea.

Ikerrek, etxolara sartu zenean, ama eta izekoren jostailu zaharrak botata ikusi zituen: panpin zaharrak, mahai-jolasak, bizikletak, patinak, egurrezko sukaldea... Guztia aztertu zuen, eta sukaldeko kaxoi baten barruan zerbait bitxia topatu zuen: antzinako kutxa metalikoa. Kutxa ezin zen zabaldu, giltzarrapoa zuen jarrita eta



kode batekin zabaltzen zen. Zenbakiak probatzen hasi ziren, baina ezinezkoa zen zabaltzea. Orduan, Ainarak ideia bat izan zuen: amonaren jaiotza-urtea ipintzea, hau da, 1941 zenbakia. “Klik!” giltzarrapoa zabaldu egin zen, eta guztiak urduri eta poz-pozik jarri ziren. Kutxa dolarrez beteta zegoen, eta billeteak oso handiak ziren.



Hurrengo egunean, gertatutako guztira kontatu zuten, eta amonaren etxea, etxola eta inguruko basoa mantentzea eta ondo babestea erabaki zuten denon artean.

ASKATASUNA NAHI ZUEN BALEA

Irati Quevedo Garmendia
Karmelo Ikastola IPI

Bazen behin, Kantauri itsasoan, Balentina izeneko balea bat. Balentina goizean goiz arrain txikiak harrapatzera joaten zen, Bizkai aldeko hondartza inguruetara: Sopelako Atxabiribilera, Ibarrangeluko Lagara, Ispasterreko Ogellara eta Mendexako Karraspiora. Balentinak gustuko zituen ur gaziak, baita bertan txilinbuelatza aritzea ere. Itsaso zabaleko askatasuna asko maite zuen.

Hori bai, egunero bere itsas familia bisitatzea gustatzen zitzaion gehien: Ane Mona olagarroa, Oskola dortoka eta Karramarroi karramarroa. Balentina bere itsas familia bisitatzea zihoan arratsalde batean, KRAUS!!, sare batean harrapaturik geratu zen. Gorputza ezker-eskuin mugitzen saiatu zen Balentina, baita isatsa ere, baina, ezin! Sareak estu-estu harrapatuta zuen. Plastikozko sare hartan pasatu zuen gaua preso, goibel-goibel.

Hurrengo egunean, arratsalderoko bisita egiten ez zuela ikusirik, kezkatzen hasi zen itsas-familia. Balentinaren berririk ez izatea ez zen normala, inoiz ez zuen hutsik egiten. Ane Mona urduri zegoen.

—Goazen Balentina bilatzera! —esan zuen Karramarroik.

—Bai! —erantzun zuten beste biek.

Eta Balentina bilatzera atera ziren. Bilatu eta bilatu, Oskola dortokak oihukatu zuen:

—Balentina hemen dago!

Karramarroi eta Ane Mona azkar batean joan ziren Balentinarengana. Balentina plastikozko sare handi batean zegoen harrapaturik. Egoera ikusirik, Karramarroik esan zuen:

—Goazen Balentina askatzera!

Tiraka eta tiraka hasi ziren, baina alferrik. Karramarroi haginekin sare aputzen saiatu zen. Denbora asko egin zuen bere helburua lortu zuen arte, plastikozko sare oso handia zen eta. Karramarroik sare aputtu zuenean, Ane Monak tira egin eta Balentina saretik atera zen.

Balentina askatzea lortu zuten, baina Oskola dortokak esan zuen:

—Ezin dugu itsaso guztia zaborrez beteta utzi.

Karramarroiri ideia bat bururatu zitzaion: zabor guztia hondartzetara eramatea, jendea konturatzeko zenbat plastiko botatzen duten itsasora. Orduan, euren itsasoko lagun guztiei buruan zuten ideia azaldu zieten, eta ondo iruditu zitzaien. Hurrengo egunean, zaborra hondartzetara eraman zuten. Hondartza guztiak zaborrez beteta esnatu ziren, eta jende guztia konturatu zen ezin zela zaborra lurrera bota. Ordutik aurrera, inork ez zuen zaborrik bota itsasora.



Ez bota zaborrik itsasora!

AMETS BATEN BILA

Haizea Lasuen Elguezabal
Karmelo Ikastola IPI

Bazen behin, Nikole izeneko neska bat. Bere ametsa astronauta izatea zen. Jendeak, ordea, txikitatik esaten zion ezin zela astronauta izan, neska zelako. “Gizon indartsuak eta ausartak bakarrik izan daitezke astronautak”,



errepikatzen zioten behin eta berriro. Neska zenez, ile-apaintzailea, sukaldaria, garbitzailea edo ama izan ahal zela esaten zioten.

Horrelako gauzak entzutean, tristetu egiten zen, bere ametsa egunen batean Saturno planetara heltzea zelako. Aitak, triste ikusten zuenean, beti esaten zion:

—Neska azkarra zara, nahi duzuna lortzeko gai izango zara.

Urteak pasa ostean, Nikole unibertsitatera joan zen eta astronauta izateko ikasketak hasi zituen. Lau urte egin zituen elikadura zaintzen, kirol asko egiten eta hainbat gai ikasten. Urte gogorak izan ziren, ia-ia lagunak ikusi gabe eta gustatzen zitzaizkion hainbat eta hainbat gauzari uko egiten; baina azkenean, ahalegin handia eginda, ikasketak amaitzea lortu zuen.

Bera astronauta izateko prest zegoen; gizartea, ordea, ez. Horregatik, erabaki gogor bat hartu zuen. Espaziora joateko mutil bilakatuko zen. Ilea moztu, mutilen arropa jantzi eta izena aldatu zuen. Nikole izena erabili beharrean, ordutik aurrera Niko izango zen. Bere ametsa eskuratu arte, mutil itxura izan behar zuen.




Egun batean, Niko astronauta probak egitera abiatu zen eta guzti-guztiak gainditu zituen, azkena izan ezik. Mediku-azterketan, neska zela konturatu ziren eta baztertuta utzi zuten.


Itxaropena galdu gabe, urtebete geroago, astronauta izateko probak egitera bueltatu zen. Mediku baten laguntzarekin azterketa gainditu, eta espaziontzira igotzea lortu zuen. Berarekin joatekoak ziren beste astronautek, ordea, espaziora abiatu baino lehen, beraren arroparen artean kulero eta bularretako batzuk ikusi, eta Nikole salatu zuten. Bigarren aldiz gelditu zen baztertuta neska izateagatik.

Nikole oso tematia zen eta bere ametsa lortzeko gogo handia zuen. Beraz, berriro, hirugarrenez, Niko astronauta probak egitera joan zen; eta oraingoan, bai, aurreko saiakeretatik ikasita, Saturnora heltzea lortu zuen.

Telebista guztietan Saturnora heldutako astronautak agertu zirenean, Niko-Nikolek bere astronauta-kaskoa kendu zuen, eta bere ile luzea erakutsi zion mundu osoari, “emakumeok nahi duguna lortzeko gai gara” esaten zuen bitartean.



Bere istorioa mundu osoan zabaldu zen, eta, ordutik aurrera, guztiek ulertu zuten emakumeok nahi dugun lekura heldu gaitetzkeela.



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



JON ETA ZUHAITZ MIRAGARRIA

Amaia Montegui de la Mora
La Salle Bilbao HLBHIP

Bazen behin, Bizkaiko mendi batean bizi zen ume bat. Ume horrek Jon izena zuen eta natura izugarri gustatzen zitzaion. Jonen amak baserriko animaliak zaintzen zituen. Eskuzabala eta maitekorra zen, eta asko maite zuen Jon. Bestalde, aita egunero herrira lan egitera jaisten zen. Ama baino serioagoa zen; hala ere, oso jatorra. Jon lanegun guztietan aitarekin joaten zen herrira, baina ez lan egitera, baizik eta eskolara.

Jon ikasle ona zen, Natura eta Gizarte ikasgaietan nota bikainak ateratzen zituen. Gainera, lagunekin oso ondo moldatzen zen; horregatik zituen hainbeste lagun!

Egun batean, klasean irakasleak honela esan zuen:



—Gaur zuhaitz baten hazia emango dizuet —eta haziak banatzen hasi zen.

—Aizu, irakasle, zer motatako zuhaitzaren hazia eman didazu? —galdetu zuen Jonek urduri.

—Zuhaitzak fruitua ematen duenean jakingo duzu hori —erantzun zion irakasleak.

Bakoitzak bere hazia motxilan sartu eta etxera eramane zuen.

Jonek, etxera heldu bezain laster, hazia landatu zuen. Egunero galdetzen zion bere buruari: “Zer fruitu emango ote dit zuhaitzak? Nolako forma edukiko ote du?...”.

Asteak joan asteak etorri, Jonek zuhaitza ureztatzen jarraitzen zuen, baina zuhaitza ez zen hazten; beraz, urduri jartzen hasi zen: “Zer demontre ari da gertatzen? Agian, ez dut ondo zaintzen? Eguzki gehiegi hartzen du? Ito egin al da?”.

Egun batean, ohean zegoela, zuhaitza nolakoa izan zitekeen prentsatzeko aritu zen: “nire zuhaitza AMETSEN zuhaitza izan daiteke”.

Hurrengo egunean, esnatu bezain laster, ohetik jaiki eta zuhaitza ikustera abiatu zen arrapaladan. Jonek ezin zuen sinetsi ikusten ari zena, zuhaitza pixka bat hazi baitzen. Hori dela eta, ziztu bizian amarengana abiatu zen, berri ona ematera. Baina zuhaitza erakustera joan zenean,... ez zegoen zuhaitzik!!! Jon logelara negarrez joan zen. Amak ez zuen ulertzen zergatik; hala ere, berarengana hurbildu zen.

Jon negarrez zegoela, aita logelara sartu zen, mutila ikastolara eramateko asmoarekin. Baina Jonek oihuka esane zuen:

—Aita, ez dut joan nahi!

Aitak ez zuen ezer ulertzen:

—Zer gertatu da? —galdetu egin zion amari, nahiko haserretuta.

Amak, keinuak eginez, ez haserretzeko esane zion aitari; eta, azkenean, Jonek negar egiteari utzi eta gurasoei gertatutakoa azaldu zien.

Handik ordu pare batera joan zen Jon klasera. Irakasleak zuhaitzei buruz galdetu zien umeei, eta Jonek ez zuen hitz bakar bat ere esan. Mutua zela ematen zuen. Orduan, irakaslea zerbait susmatzen hasi zen.

—Jon, zer duzu, bada?

—Ezer ere ez —erantzun zion Jonek goibel—. Pixka bat triste nago.

Jonek gertatutakoa kontatu zion irakasleari. Harrituta geratu zen, baina ezin zuen Joni pasatutakoa sinetsi.

Gau horretan, ohean zegoela, berriro hasi zen prentsatzeko zuhaitza nolakoa izatea nahi zuen: AMETSEN zuhaitza. Orduan, bere buruari galdetu zion balitekeela hori izatea arazoa: zuhaitza nolakoa izatea nahi zuen pentsatzea.

Hurrengo egunean, esnatu zenean, berriro etorri zitzaion burura zuhaitza. Orduan, zuhaitza nola hazten ari zen ikusi zuen. Eskolatik etxera heldu zenean, berriro zuhaitzean pentsatu, eta, pixkanaka-pixkanaka, zuhaitza forma hartzen ari zela ohartu zen. Gertatzen zen guztia egia zela ziurtatzeko, zuhaitzean pentsatzeari utzi zion, eta zuhaitza desagertu egin zen. Bat-batean dena ulertzen hasi zen. Zuhaitzak ez zion hazteari uzten txarto zaintzen zuelako edo eguzki asko ematen ziolako.

—Ematea nahi dudanean fruituak pentsatuz gero hazten da! —esane zuen.

Jon, poz-pozik, ama eta aitarengana hurbildu zen beraren ustez gertatzen ari



zena kontatzera. Aita eta ama harrituta geratu ziren, baina, oraingo honetan, Jonek azaldutakoa sinetsi egin zuten.


Jon pozik zegoen, baina, oraindik, zuhaitzak zer emango zuen jakitea falta zitzaion: “nire zuhaitza, AMETSEN zuhaitza bada, ametsak emango ote ditu?”.

Gau batean, erregea zela amestu zuen, eta, hurrengo goizean, zuhaitza ureztatzen joan zenean, hosto batean urrezko koroa bat agertu zen. Hurrengo egunean berdin gertatu zen. Orduan esan zuen:

—Listo! Nire zuhaitzean, nik amestutako gauzak agertzen dira!

Jonek ezin zuen sinetsi berak landatutako hazia miragarria izatea. Arin-arin, ama, aita, eskolako irakasle eta lagunei kontatu zien. Jendeak ez zuenez sinesten, denak baserrira joan ziren eta Jonen ametsak hazten ziren zuhaitz eder bat ikusi zuten. Oraingoan Jonen kontakizuna sinetsi egin zuten, bai.

Ordutik aurrera, Jonek egunero kontatzen zizkien ametsak lagunei.



HURRENGORA ARTE!!!!!!

DEABRUEN MENDIKO MISTERIOA


Lili de Quadra de Pedro
Abusu Ikastola HLBHIP

Baziren behin neba-arreba batzuk, Aiala eta Markos. Oso ondo moldatzen ziren elkarrekin; lagun on-onak ziren. Bueno, izatez bikiak ziren; eta hain antzekoak ziren, ezen normala zen gustu berberak izatea. Gehien gustatzen zitzaiena bihurrikeriak egitea eta jendeari sustoak ematea zen; eta, nola ez, lagunekin egotea. Lagun berberak zituzten: Mara eta Martin. Aiala, Markos, Mara eta Martin Arrasaten eraikin berean bizi ziren eta pijama-festak egiten zituzten astebururo. Gaueko 12etan afaltzen zuten eta goizaldean lokartzen ziren. Aialak, Markosek, Marak eta Martinek 13 urte zituzten.

Mara bosgarren pisuan bizi zen neska ausarta zen, baina momentu oso emozionanteetan lo geratzen zen. Narkolepsia izeneko gaixotasuna zuen eta oso barregarria zen haren barrealdi baten erdian bera lokartzen ikustea. Arriskutsua ere bazen, lurrera jausten zenean, min hartu zezakeelako. Martin zortzigarren pisuan bizi zen mutiko azkar eta formala zen. Beti zeukan libururen batetik ateratako ideia txororen bat lagunekin probatzeko. Laurei gustatzen zitzaien piloa irakurtzea eta abentura liburu horiek imitatuz abenturak bizitzea. Ikastolatik bueltatzen zirenean, etxeko lanik ez bazuten, irakurketa tertuliak egitea gustatzen zitzaien.

Behin, Aiala eta Markosen amama eta aititaren etxera joan ziren lau lagunak. Amamak, txokolate beroarekin batera, ipuin bat kontatzea eskaini zien, eta baietz

ezan zuten, noski. Amamaren istorioan, Aiala, Markos, Mara eta Martin ziren protagonistak, eta hau kontatu zien:



“Bazen behin mendi ilun-ilun eta oso beldurgarri bat, galtzeko leku zoragarria... Ilunaitz.”

—liiiiiiiii!! —egin zuen oihu Aialak, Martin besarkatuz.

—Aiala eta Martin, Aiala eta Martin... —esan zuen Markosek burlati, inguruan salto eta dantza egiten zuen bitartean.

Amamak bekozko ilunarekin begiratu zion.

—Ez didazue entzungo ala zer! —esan zuen amamak haserre.

Aiala, Markos, Mara eta Martinek baietz esan zuten buruarekin, laurek batera, barreari eusten zioten bitartean. Amamak istorioarekin segitu zuen azken begiratu ezatseginaren ondoren.

“Gurasoek umeei txikiak zirenetik esaten zieten Deabruen mendia zela bere benetako izena, eta ez Ilunaitz; baina umeek ez zuten guztiz sinesten mendian deabruak bizi zirela. Deabruak infernua zeudela uste zuten. Mendi horretan tunel magikoak zeudela esaten zuen herriko jendeak, argidun txokoak ere bazeudela, erreka misteriotsuak eta holako sinismenak. Alaia, Markos, Mara eta Martinek ez zituzten teoria horiek sinesten, eta hori egia ala gezurra zen jakiteko beharraz eztabaidatzen zuten askotan. Askotan, batzuk mendira joateko prest egoten ziren, ilusioz beterik; eta besteek txorakeria horretan ez zela denborarik galdu behar uste zuten. Baina, egun batean, denak ados agertu ziren: MENDIRA JOANGO ZIREN!!! Gurasoek euren teoria zutenez egiaztat, misio sekretua izan behar zuen. Ezkutuan egin behar zuten.

Hurrengo gauean, bakoitzak bere motxila hartu zuen, ura, janaria, jaka bat eta linterna bat barruan zituztela, eta etxetik alde egin zuten gurasoak lo zeuden bitartean. Herriko plaza batean elkartu ziren (Euskalerria plaza). Oso berandu zen, 01:30. Linternak piztu eta aurrera egin zuten. Mendira heldutakoan, denek egin zuten duda; baina inork ez zuen onartu eta bidexka ilun-ilun batetik segitu zuten. Mara dardarka zegoen eta Markosek, narkolepsia atake bat ez edukitzeko, bere jaka eman zion”.

Markos gorritu egin zen eta Aialak barre egin zion:

—Markos eta Mara, Markos eta Mara, Markos eta Mara...

—Negarrez hastea nahi duzue? Ez moztu berriro! —esan zuen Amamak.

—Amama, bururako pilulak hartu dituzu? —galdetu zion beldurrez Markosek.

—Utzi bakean amama; eta, bai, hartu ditu pilulak! —erantzun zion Aialak bortitz.

—Bueno, ez eztabaidatu, istorioarekin jarraituko dut —etsita esan zuen amamak.

“Marak Markosen jakea gustura jantzi zuen, zeren berea oso fina zen.

—Eskerrik asko —eskertu zion Marak.

Markosek, Mararen esker onarekin gorritu, eta irribarre egin zuen, baina Aialak moztu egin zituen esanez:

—Utzi maitasun kontuak eta begiratu aurrera estropezu egin baino lehen. Markosek txarto hartu zuen Aialak esandakoa.

—Bueno, bale, ez da hainbesterako —minduta esan zuen Markosek.

—Bueno, ez gara haserretuko. Aurrera segituko dugu —esanez saiatu zen Martin liskarra konpontzen. Saiatu eta konpondu ere konpondu zuen, isilean jarraitu baitzuten aurrera.

Zenbat eta aurrerago joan, orduan eta ilunago zegoen bidea, eta linternei gero eta denbora gutxiago geratzen zitzairen amatatzeko. Bat-batean kobazulo bat topatu zuten. Kobazuloaren amaieran argi txikitxo bat ikusten zen. Ea gurasoek esaten zuten kobazulo edo tunel magiko hori ote zen galdetu zuen Martinek. Besteen esanetan, amaierako argi horrek azalpen arrunta izan behar zuen, eta onena tunela esploratzea zela erabaki zuten. Barrura sartu bezain laster, hezetasun olatu ezatsegin batek bildu zituen. Gazteek, momentu horretan, esploratzeari utzi zioten, eta korrika hasi ziren, nazkaz beterik. Baina kobazuloa ez zen amaitzen.”

—A zelako beldurra eta sentsazio txarra, amama. Nork kontatu dizu istorio hori? —esan zuen Aialak txokolate-zurrutada bat hartzen zuen bitartean. Hainbeste gustatzen ari zitzaion istorioa, ezen ez zuen txokolate tragorik edan ordura arte.

—Nik asmatu dut ipuina —esan zuen, dudan, amamak.

—A zelako zortea daukazuen holako amama edukita. Nire amametariko bat COVIDak jota hil zen eta bestea Ingalaterran bizi da —esan zuen inbidiaz eta penaz Martinek.

—Nire familian ipuinak kontatzen dituenaita da, amaren aita, baina aitaren aldetik amama, zeren aitita burua galtzen ari da —esan zuen atsekabetuta Marak.

—Ez esan familiari buruzko gauza txarrak bakarrik, onak ere esan—adierazi zuen amamak maitekiro.

—Bueno, segituko duzu, amama? —galdetu zion Markosek.

—Utzi pixkatxo batean arnasa hartzen —erantzun zuen amamak.

—Ez, mesedez, kontatu ipuina, mese, mese, mesedez!!! —oihukatu zuten denek.

—Ondo, ondo, baina ez oiuhukatu, aitita itzartuko duzue eta —esan zuen amamak barrezka.

“Amaiezina zirudien tunel moduko kobazulo hura zeharkatzeko, 5 minutu behar izan zituzten. Beste aldera oso nekatuta, baina heldu ziren.

—Paradisua, uauuu! —egin zuen oiuhu Marak.

—Kar-kar-kar —barre egin zuten beste guztiek, Marari eusten zioten bitartean, lokartzen hasita jausten ari zelako. Hainbeste argi egonda oraindik ezin zuten ondo ikusi ingurukoa. Baina begiak ohitu zitzaizkienean, Marari arrazoia eman zioten; leku horretako zuhaitzak berde-berde zeuden; loreak kolore bizian; tximeletak zeuden, untxiak, txoritxoak kantari; errekatxo bat entzuten zen. Hain liluragarria zen hura, non eszenatoki bateko dekoratua ematen zuen; baina lurra benetakoa zen eta zuhaitzak ere bai.

—Baina nola da posible tunelean sartu garenean gaua izatea eta, orain, hemen kristoren argia egotea? Zer ordu da? —esan zuen Martinek erlojua begiratzera zihoala. Baina, bat-batean, eszenatoki batean baleude bezala, argia itzali egin zen. Presaka linternak bilatzen hasi ziren. Baina topatu baino lehen, Aialaren oiuhua entzun zen, urruntzen, eta gainerakoak asko beldurtu ziren.

—Aiala, Aiala, nora zoaz, zer gertatzen da? Bueltatu!

Eta linternak piztea lortu zutenerako Aiala ez zegoen haien inguruan eta bere oihuak ez ziren entzuten. Linternekin bilatzen hasi ziren. Laguna eta arreba zen, eta ezin zuten bertan utzi, bestela etxera arineketan itzuliko ziren beldurrez beterik.

—Ez dugu topatuko, laguntza eskatu behar dugu —esan zuen Martinek arduratuta.

—Eta zer esango diegu gurasoei? Etxetik eskapatu garela, tunel magiko batetik pasatu garela eta Aiala galdu dugula? Barkatu, txarto hitz egin dizut, denok gaude arduratuta —esan zuen Markosek negarrez.

Marak, kontsolatu nahian, besarkatu egin zuen. Orduan, beste oiuhu bat entzun zen. Martinek, oso entzumen ona zuenez, berehala detektatu zuen nondik zetorren; eta bertarantz korrika egin eta zubi arrosa batekin egin zuten topo. Gurutzatzera zihoazenean, Martini norbaitek eskua jarri zion sorbaldan eta oiuhu ezatsegin bat egin zuen. Ikaratuta, Mara lokartu eta jausi egin zen, eta Markosek ez zekien zer egin. Markosek eta Martinek gizon bat ikusi zuten haien atzean. Gizon handi eta nagusi bat. Deabru bat edo Aiala bahitu zuen pertsona izan zitekeela pentsatu zuten. Orduan, Mara itzartu egin zen, eta gizona ikustean, berriro lokartu zen sustoaren sustoz.

—Non dago gure laguna? Zer egin duzu berarekin? Nor zara? Ez egin minik —esan zion ahots dardaratiarekin Martinek. Orduan, gizonaren atzean Aiala agertu zen barrezka.

—Lasai, ondo nago! Hau Rodrigo da, ez dizue ezer egingo. Toki hau eraiki du lehengo lanpostuaren falta sentitzen zuelako. Lehen, atrakzio parke bat zuen eta itxi egin behar izan zuen. Gero, mendi honetan beldurrezko atrakzio parke bat muntatu

zuen, oso erreala, eta jendeari esaten zion mendi hau madarikatuta zegoela. Beraz, atrakzioa oso ausartak direnentsat bakarrik da.

—Bai, barkatu —esan zuen Rodrigok— atrakzio hau nagusientzat da. Hain beldurtuta ikusi zaituztedanean, gelditu egin dut dena, pena eman didazuelako.

—Zer? Zer gertatzen da? Nork eman du pena? —esan zuen Marak itzartu berritan.

Denak barrezka hasi ziren eta Rodrigoren sekretua kontatu zioten. Rodrigok sekretua gordetzeko eskatu zien eta herriko jendeari sinetsarazteko mendia oso beldurgarria zela eta ausartek bakarrik topatu ahal zituztela mendiko deabruak.

Handik aurrera, hilabetero egiten zioten bisita Rodrigori eta beti pasatzen zuten beldurra —Mara bi edo hiru aldiz lokartzen zen—, baina asko gustatzen zitzaien. Bukaeran, Rodrigok Bagel batzuk ematen zizkien jateko.”

—Amama, ederra! Gaur gauean etxetik eskapatuko gara ondoko mendira joateko! —esan zuen Markosek.

—Ezta pentsatu ere! Zuen gurasoei esango diet atea giltzarekin ixteko!

—Kar-kar-kar!

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Abusuko plazan.

ZEROTIK HASTEN

Irati Barrena Ibarrondo
Deustuko Ikastola IPI

Gaur, esnatu naizenean, logelako leihotik begiratzen hasi naiz, haizea eta euria aurpegira zetozkidan bitartean. “Nire jatorrizko herria askoz politagoa da, hau ez zait gustatzen!!! Euri asko egiten du!!!“

Ah! Parkatu ez dizuet neure burua aurkeztu. Noelia dut izena eta nire herria, Pelonia, gerran dago, Dilineoren kontra. Orain Euskal Herrian nago, Bilbon hain zuzen. Nire amarekin bizi naiz. Aita gerran dago pertsona gehiagorekin gure herria babesten. Itzel sentitzen dut haren falta. Martitzen guztietan hitz egin ahal izaten dut berarekin ordu erdiz, baina ez da nahikoa.

Aste honetan Bilbo ezagutuko dut. “Ze aspergarria!” Oso polita dela esan didate, eta janari oso gozoa dagoela, adibidez, gurinezko opiltxoak edo rabak. Eta hurrengo astean ikastolara joango naiz. “Ez naiz ikastolaz libratzen!”

Astelehena: gaur, ama eta biok Bilboko Guggenheim museoa ikustera joan gara, eta gero, Iruña taberna ospetsuan bazkaldu dugu. “Ez zait egun hau gustatu!”

Martitzena: hiriko ahateen parke handira joan gara, eta gero, etxean makarroiak tomatearekin jan ditugu. Bukatzeko, aitarekin hitz egin dut.

Eguaztena: gaur, oso berandu esnatu gara, horregatik ez dugu gosaldurik; zuzenean bazkaldu egin dugu. Arratsaldean udaletxean dauden Gabonetako apaingarri itzelak ikustera joan gara. “Kaka itzela izan da, denak urdinak; nire herrikoak askoz hobeak dira!”

Eguena: gaur goizean, lasai-lasai egon gara etxean, eta arratsaldean Erriberako merkatu famatura joan gara. “Nire herriko merkatua askoz hobea da!”

Barikua: gaur, Artxanda izeneko mendira joan gara eta han bertan bazkaldu dugu. “Ibili eta ibili, ze aspergarria!”

Zapatua: gaur, Zubiartera joan gara eskolako materiala erosi behar genuelako. Arropa berria ere erosi dugu, eta gero bertan jan dugu zerbait.

Domeka: gaur, egun osoan lasai-lasai egon gara etxean, goizean etxea txukuntzen eta garbitzen, eta arratsaldean pelikula bat ikusten. Pelikula ikusi ondoren, nire logelara joan naiz.

Bertan, pentsatzen aritu naiz, eta ondorio bat atera dut: aste honetan piloa ibili gara, museo aspergarriak ikusi ditugu, ahate batzuei argazkitxoak egin dizkiegu eta abar. “EZ DU EZERTARAKO BALIO IZAN!!!”

Gaur astelehena berriro! Egunak aurrera doaz eta gerra ez da amaitu. Ez dakigu aita ondo dagoen; baietz espero dugu. Laster Olentzero etorriko da. Nire herrian Papa Noel etortzen zen; baina, aurren, Euskal Herrian nagoenez, Olentzero etorriko da, eta espero dut ordurako aita hemen egotea, amarekin eta biokin ospatzeko.

Gaur, klaseko lehenengo eguna da eta oso urduri nago, lagunak egitea asko kostatzen zaidalako. Gainera, ez dut beraien hizkuntza hitz egiten. Horrez gain, egun hauetan oso aztoratuta nabil, baina ezin naiz kontrolatu. Eskola bederatzi eta erdietan hasiko da eta etxetik atera behar dugu.

Lehenengo orduan, Matematikak lantzen ari gara; ez dut ezer ulertzen. Jolastokira joateko ordua heltzeko gogoia dut. DRIN-DRIN-DRIN! Azkenik, jolastokira!!! Ikastola honetako jolastokia nire etxekoa baino handiagoa da. Ume guztiak eserita daude, mugikorrari begira; nik, aldiz, ez dut mugikorrik. Zer egingo dut?

10 minutu geroago, ume bat hurbildu da niregana eta galdetu dit:

—Nirekin jolastu nahi al duzu?



Ez diodanez ezer ulertzen, buruarekin ezetz esan diot, eta korrika joan da.

Gero, klasera itzuli gara eta gai batzuk landu ditugu. Eta bat-batean, etxera joateko ordua heldu da. Etxera heldu naizenean, amari oso-oso txarto erantzun diot, eta logelara bidali nau. Logelan negarrez hasi naiz, besteak beste, aitaren hutsunea sentitzen dudalako, ez dudalako lagunik egin, txarto sentitzen naizelako, amari txarto erantzunteagatik,...

URTEBETE GEROAGO...

Jada urtebete pasatu da. Baditut lagun batzuk, eta, denborarekin, Bilbo ez dagoela hain txarto konturatu naiz. Euskara ikasten nabil. Gerrako egoera hobetzen ari da, eta nik uste dut laster bukatuko dela. Ez hori bakarrik, guk irabaziko dugula ere uste dut! Aitaren falta dut. Aurten, asteen bi egunetan hitz egin ahal izan dut aitarekin, horregatik nago pozik. Dena dela, nire ustez, ez da nahikoa. Amak eta biok bakarrik ospatu genituen aurreko Gabonak; baina espero dut aurten aita gurekin egotea. Amak, ordea, esaten dit ezin izango dela etorri, ilegala dela soldadu bat gerratik etortzea, kartzelan sartu dezaketela.

Gaur eguna da eta ikastolara joango naiz. Aurten bi lagunekin joaten naiz ikastolara, amak lan berria duelako.



Ikastolatik bueltan, nire logelara joan eta leihotik begiratzen hasi naiz. Ni jaio nintzen herria oso desberdina da, baina bi urte pasa dira, eta hau ez dagoela hain txarto ikusi dut: hizkuntza berria ikasten nabil, lagun berriak egin ditut, nire kultura beste ume batzuei erakutsi diet, beraiek beraien kultura erakutsi didate, esperientzia berriak ikasi ditut, eta abar.

ASTELEHEN GOIZA (OLENTZERO ETORRI DA!!!!)

Esnatu naizenean, opariak egongelan zeuden. Ireki dudan lehen oparia pultsera bat izan da. Aitak eta amak berdina dute. Pultsera horiek zera esan nahi dute: elkarrekin egon ez arren, beti maitatuko dugula elkar. Eta bigarren oparia bizikleta urdin polit bat izan da.

Привіт, Україно, ми з тобою!

LAU ERRUGABEEN MISTERIOA

Garat Sagastasoloa Herrera
Abusu Ikastola HLBHIP

Kaixo, Martin naiz, Bartzelonako polizia bat. Laura nire laguntzailea da eta gaur misterio bat daukagu konpontzeke auzitegi batean. Datu gutxi eta gorpu bat ditugu. Lekukoek esan dutenaren arabera, auzitegiko itxaron gela batean zeudela, bat-batean, argiak amatatu dira. Guztiak altxatu dira haien lekuetatik, eta argia bueltatu denean, gorpu bat agertu da aulki batean. Hilketak tiroz izan dela esan digute.

—Baina zaila izango da. Lau susmagarri ditugu —kexatu da Laura.

—Egon trankil. Ziur, azkenean, erruduna harrapatuko dugula —esan diot.

Arratsaldean, auzitegira joan gara ikertzerak, eta epailearekin hitz egin dugu.


—Ezer arrarorik ikusi duzu hemen? —galdetu dio Laurak.

—Ez, nik ez dut ezer sumatu —esan du epaileak.

—Bueno, susmagarriekin hitz egingo dugu —jakinarazi diot.

Susmagarriekin hitz egin ostean, ez dugu jakin nondik hasi. Eman dizkiguten pistak ez dira oso baliagarriak. Ez dute elkar ezagutzen eta trafikoko isunak ordaintzeko hitzordua zuten denek auzitegian. Ezer larririk ez.

Susmagarriekin egin beharrekoak egin ditugunean, epailearen gelara joan gara berarekin ikerketa komentatzeko. Justu-justu itxaron gelaren ondoan dagoen bulegoa da. Asko eskertu dut, belaunean lesio bat dudalako. Ez dut asko ibili behar izan.



Zain gauden bitartean, eskegita dauden koadroak begiratu ditugu. Oso koadro bereziak dira, eta konturatu gara, horietako askotan, epailea arma batekin agertzen dela. Okertuta dagoen koadro bat ondo ipintzen ari da Laura, epailea sartu den momentuan.

—Eh! Ez ukitu nire koadroak! Zuk baino balio handiagoa dute!

—Barkatu, epaile jauna.

—Tira, zerbait argitu duzue?

—Momentuz, ez —erantzun diot nik.

—Zuk ba al dakizu arrazoiren bat dagoen beraien artean haserre egoteko?

—galdetu dio Laurak.

—Ez. Zergatik jakin beharko nuke nik hori? —galdetu du epaileak.



Arratsaldean, ispiluz eta koadroz beteriko taberna berri batera joan naiz Laurarekin.

—Zerbait jango duzu? —galdetu dit Laurak.

—Ez, eskerrik asko —erantzun diot mahai bat aukeratzen dudan bitartean.

—Kar-kar-kar! Mahai honen ondoan dagoen koadroa oso barregarria da! Primeran aukeratu duzu mahaia, zure arbasoa ematen du —esan dit Laurak barrezka.

Mahai ondoan, txerri baten koadroa dago. Txerria golfera jolasten ari da.

—Ni hobe naiz golfean! —esan diot nik ere barrezka.

Orduan, Laura zerbait eskatzera joan da, eta kafetegiko tabernariari galdetu dio ea koadroa berria den.

—Bai, hor koadro bat jarri behar izan dugu, horman zulo bat dugulako eta gure biltegia ikusten delako. Irtenbide errazena koadro bat eskegitzea izan da.

Mahaira bueltatzerakoan, barre piloa egin dugu biok. Baina, bat-batean, kafea bukatu gabe zuelarik, Laura altxatu egin da eta ertzain-etxera argazki batzuk ikertzerantz joan behar zuela esan dit. Ertzain-etxera heldu naizenean, auzitegiko itxarongela eta epailearen bulegoa ondoan daudela konturatu dela azaldu dit Laurak; eta itxarongelan egin ditugun argazkietan, horman zulo bat dagoela ikusten dela.

—Hemen! Ikusten duzu?

—Nik ez dut ezer ikusten —onartu diot.

—Goazen auzitegira. Badakit nor den hiltzailea.

Auzitegira heldu garenean, Laura zuzenean joan da epailearen bulegora. Epailea barruan zegoen, eta Laura azaltzen hasi da.

—Atzo itxaron gelan zeuden pertsonak ez zutela ezer komunean konturatu gara. Ez zuten elkar ezagutzen. Baina zuk horietariko bat ezagutzen zenuen, epaile jauna. Hildakoa. Bera izan zelako duela urte batzuk zure alaba hil zuena.

—Ez nekien ezer.

—Bai, bazenekien. Zuk eman zenion auzitegira etortzeko hitzordua —esan diot nik.

—Eta? Hori ez da ilegala.

—Ez, hori ez da ilegala, baina zure bulegoan zulo bat egitea eta bertatik pistola sartzea beste aldean dagoen norbait hiltzeko, bai —azaldu dio Laurak.

—Zer esan nahi duzu?

Orduan, Laurak, goizean zuzen jarritako koadroa mugitu, eta atzean dagoen zuloa erakutsi dio.

—Hemen egin duzun zuloa itxaron gelarekin komunikatzen da. Bertan zegoen eserita biktima. Gaur goizean, ordu horretan argiak amatatu dituzu eta zure bulegotik arma hartu eta tiro bat egin diozu.

—Ordaindu egin behar zuen! Nire alabari egindakoagatik ordaindu behar zuen!

Eta arratsaldean, epailea kartzelara eraman dugu. Kasua golfean jolasten dagoen txerriari esker ebatzi dugu.

GAUZAK ALDATZEKO ORDUA

Unai Ibarretxe Fernandez
Karmelo Ikastola IPI

Behin batean, duela 200 urte, familia inuit bat bizi zen. Aita Marco deitzen zen eta oso ehiztari trebea zen. Amak, ordea, janaria prestatu eta etxeko lanak egiten zituen. Zoritxarrez, istripu batean hil zen. Seme-alabek Sofia eta Aitor zuten izena, bikiak ziren eta 13 urte zituzten.

Ama hil zenean, aitak Sofiari agindu zion amaren lanak egiteko, eta Sofia haserretu egin zen. Ezin zuen ulertu zergatik egin behar zuen berak guztia.

Egun batean, aitak, mendian jausi, eta hanka apurtu zuen, eta ezin izan zuen ehizan joan. Orduan, Aitorrek joan behar zuela esan zuen.

Sofiak bera joango zela esan zion aitari, baina aitak ez zion utzi. Neskak sukaldatzeko eta etxeko lanak egiteko eta mutilak ehizatzeke zirela esaten zuen. Baina Sofia oso ehiztari ona zen. Txikitatik ikasi zuen lantzak erabiltzen; eta horregatik ez zuen ulertzen zergatik aitak esaten zuen hori. Oso haserre zegoen.

Egunak pasatu ziren, eta, behin, Aitor ez zen etxera bueltatu. Sofia oso kezkatuta zegoen eta bere bila joatea erabaki zuen. Motxila prestatu, lantza hartu eta Aitorren bila joan zen.

Sofiak oso ondo ezagutzen zuen herria, eta bertara abiatu zen. Herrian ez zuen ikusi, baina, badaezpada, lagunei galdetu zien ea ikusi zuten. Inork ez zuen ikusi. Gero eta kezkatuago zegoen eta mendira joatea erabaki zuen.



Hasieran ez zuen ezer aurkitu, baina bat-batean otso oihu batzuk entzun zituen. Isil- isilik hurbildu zen, eta kobazulo batera heldu zen. Bertan zegoen Aitor! Baina aurrean otso ikaragarri bat zuen. Aitor oso ahul zegoen, ezin zuen ibili, eta otsoa gero eta gehiago hurbiltzen ari zen berarengana. Orduan, Sofiak lantza bota eta otsoari hankan eman zion. Korrika ihes egin zuen guztiz minduta. Sofiak Aitor besarkatu zuen eta etxera bueltatzen lagundu zion. Bidean, basurde bat gurutzatu zen beraiekin eta Sofiak lantza bota eta harrapatu egin zuen! Horrekin aste batzuetarako haragia zeukaten!

Etxean, gertatutakoa kontatu zioten aitari, eta aitak, oso kezkatuta eta negar zotinka, esan zien:

—Barkatu, oso erratuta nengoen...

Eta neskek eta mutilek gauza guztietarako balio dutela ulertu zuen aitak. Handik aurrera, askoz hobeto konpondu ziren, eta lan guztiak hiruren artean banatzen zituzten. Eta katu-katu ipuin hau bukatu.

ELKANOREN ILEORDEA

Udane Pena Martínez
Intxiku Ikastola HLHI

1412ko uztailaren 24a

Aste bat pasatu da gerra amaitu zenetik. Ileorde berria jarrita eta kafe bat esku artean daukadala kontatuko dizuet gertatutakoa. Beraz, erne!

Beti izan naiz abenturazale amorratua, eta horregatik, 1366ko apirilaren 4an itsasoratu nintzen Moby Dick balea bilatzeko asmoz. Esaten zutenez, Moby Dick Txileko ur hotzetan zebilen, Mocha uhartean, hain zuzen ere.

1405eko maiatzaren 11n Mocha uhartera heldu nintzen. Aro horretan, Zerrahortzak motako katagorriak mundutik bueltaka zebiltzan, eta horietako batzuk nire itsasontzira igo ziren. Uhartera heldu orduko, denak bota nituen, bat izan ezik. Katagorri hark Stuart izena zuen, horixe esan zidan berak.

Katagorri mota horri, egurra jateaz gain, hortzekin ilea moztea ere gustatzen zaio, ileak daukan proteina batez elikatzen dira eta.

Nik nire ilea asko maite nuen, hain polita zen... Eta animalia horregatik geratu nintzen burusoil, katagorri madarikatuari ere gustatzen zitzaiolako! Di-da batean ilerik gabe geratu nintzen! Gose zen, antza denez. Baina nola ausartu zen katagorri ziztrin hura nire ileordea jatera?

Hortxe hasi zen nire gudarik nagusia. Horregatik...

- ✓ Hasteko, nire lagunei deitu nien.
- ✓ Haiekin armada bat sortu nuen.
- ✓ Denok elkartu ostean, beste hiru itsasontzi hartu eta Stuart Katagorriaren bila joan ginen, nire ilea askatzera. Gogoratu nintzen uharte batean geundela eta ezin zuela ihes egin, mota horretako katagorriek ez zekitelako igeri egiten.

Nik esanda, itsasontzi guztiek uhartea inguratu zuten eta ni neu uhartean barneratu nintzen. Sasitza handia zegoen, baina katagorriaren arrastorik ez. Azkenean, irlaren beste aldera heldu nintzen eta bertan zegoen katagorri madarikatu hura. Pistola hartu eta tiro egin nion. Ez nion eman, baina buztanaren zati handia galdu zuen.

Orduan amaitu zitekeen dena, baina ez, ez zen amaitu. Atzetik jarraitu nion uhartean zehar, 7 urte luzez. Bera harrapatu nahian, gutxinaka-gutxinaka kainoien balekin Mocha uhartea txikitu egin nuen, zuloz betetako gazta bezala utzi nuen lurralde hura.

Azkenean, lur-zati txiki bat geratu zen, eta bertan elkartu ginen biok aurrez aurre, nekatuta. Momentu hartan, elkarri begietara begira geundela, Stuart katagorriak ez zuela gerrarik nahi esan, eta hauxe aitortu zidan: ezin izan zuela jasan ile hain polita eta gozoa ez jatea eta horregatik jan zuela. Baina bakea nahi zuen.


Nik ere isatsaren zati handia kendu nion, eta, nahiz eta nire ileordearen antzik izan ez, ileorde bezala jarri nuen. Oso nekatuta nengoen, zazpi urte luze egiten dira eta. Horregatik, baietz esan nion buruaz eginda, bakean geundela.

Stuartek, barkamena eskatzeko, geratzen ziren material puskekin kasko moduko bat egin zidan ileordea eusteko; eta nik bere familiarekin eramango nuela zin egin nion. Elkarrekin bidaiatu genuen.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila San Inazioko Levante plazan!

AMAIERA





C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



HEGAN EGIN NAHI ZUEN UMEA

Leire Ramil de Lucas
San Adrian BHI

Hegan egitearekin bakarrik amesten zuen. Txikitatik zen hori bere pasioa. 6 urte zituenean igo zen lehenengo aldiz hegazkin batera, bere amarekin, aita bisitatzera joateko; izan ere, aita Parisen bizi zen. Alainen aita eta ama bera umea zela dibortziatu ziren, eta orain Alaine 10 urte dauzka.

Txoritxoak eta hegazkinak ikustea, edozein gauza hegan egiten ikustea, zuen gustuko. Urte horretan, klasean, txorien gaia landu zuten berriz Natura irakasgaian. Txorien hezurak hutsik daudelako egin ahal dutela hegan ikasi zuten. Eta horrekin obsesionatzen hasi zen.

Bi hilabete pasatu ondoren, Alaine 11 urte bete zituen, eta aitak, jakinik hurrengo urtean ordenagailu bat beharko zuela, urtebetetze-egunean, bat oparitu zion. Sarera konektatu ondoren, lagun minak bihurtu ziren; etxera heltzea desiratzen zuen egunero berarekin egoteko. Ordenagailuak edozeren erantzuna zeukan, maisu-maistrarik onena zen, ama baino hobea ere bai; izan ere, berak argitzen zizkion maisu-maistrek eta amak azaltzen ez zizkietenak.

Egun batean, bilaketa hau egin zuen sarean: *Nola egiten dira hezur hutsak?* Ordenagailuko bilaketa horrek orrialde askotara eraman zuen Alain. Egunero ikertzen zuen, erantzuna zeukan orrialdea aurkitu arte: *pisua galduz*.

Orrialde horietan mota askotako informazioa aurkitu zuen: kirola egiteari buruzkoa; elikaduratik jaki batzuk kentzeari buruzkoa; bere buruari min nola egin azaltzen zuten moduei buruzkoa... Baina gauza horiek eginez gero, ezin zion inori kontatu, ez zuen inork ulertuko eta.

Orrialde horietan dena zegoen idatzita: nola lortu hezur hutsak hegan egiteko eta airean bizi ahal izateko, birikek ahalbidetzen zuten neurrian igotzeko. Hori aurkitu zuenean, ama konbentzitu zuen kiroldegi batera eramateko. Klaseak bukatutakoan joaten zen lagun batekin, lagunaren gurasoek lagunduta, astean hiru egunez; eta asteburuetan amarekin.

Denborak aurrera egin zuen; eta, behin, pisatu egin zen, baina baskulak ez zuela helburua bete esan zion, gehiago saiatu behar zuela. Eta gutxika-gutxika jateari utzi zion. Astean bost egunetan joaten zen kiroldegira eta pisua jaisten jarraitu zuen.

Jendeak argalago ikusten zuen, eta “ze guapo zauden” edo “zenbat argaldu zaren, hobeto ikusten zaitut” esaten zion. Alaini horrelako komentarioak bost axola zitzaizkion, izan ere, bere helburua ez zen guapoago egotea, edo fisiko hobe edukitzea, bere helburua beste bat zen. Denborak aurrera egin zuen, eta ez zela argaltzen ikusi zuen, ez behintzat hezurak hutsik geratu eta hegan egiteko beste.

Helburua ez betetzeak beste ondorio batzuk izan zituen; adibidez, momentu oro izaten zuen buruko mina, ez jateagatik eta estresagatik. Umorean ere aldaketa nabaritu zuen; jendeari batzuetan txarto erantzuten zion: amari, lagunei, maisu-maistrei... Dardakadak ere izaten zituen, eta hotzagatik zela jartzen zuen aitzakiatzat. Jadanik sabelak ia ez zion zaratarik ateratzen, ez zeukan jateko behar besteko indarra, ura eta frutaren bat hartzeko soilik. Begi-poltsak ez zitzaizkion nabaritzen, amaren makillajea hartuz gero, ikusezin bihurtzen ziren eta.

Ama arduratzen hasia zen jada, semea asko aldatzen ari zelako eta ez zekielako zergatik. Egun batetik bestera ez zuen bere semea ezagutzen. Amak semearen inguruan dena ikusten zuen berdin –lagunak, ahaleginak eskolan, jan egiten zuen–, baina bere izaera ez. “Dopatzen ariko ote zen semea?”

Alainek hitz egin zezan, ahaleginak egiten zituen amak, baina ezer ez. Semeak baskula madarikatuarekin bakarrik hitz egin nahi zuen, eta hegan egin ahal izateko, gehiago argaldu behar zuela esaten zion harek beti. Beste pertsona batzuekin hitz egin nahi zuen, azkarrago argaltzeko aholkuak ematen zizkiotenekin. Pertsona horiek bere lagunak ziren, ordenagailuaren beste aldean zeuden lagunak; bera ulertzeko gai zirenak eta ondo sentiarazten zutenak.

Egun euritsu batean, baina, bere gorputza jausi egin zen. Orduan, Alain hodeien artean aritu zen hegan, txoriekin eta hegazkinekin batera, berak nahi zuen gisan. Ez dakit zenbat denboran egon zen horrela. Semearen egoera delikatu zela esan zioten medikuek amari: semeak anorexia zeukan.

Berri txar hori jasotzean, zur eta lur geratu zen ama. Ezin zuen sinetsi, ez zekien zer gertatu zitzaion bere semeari puntu horretara heltzeko, ez zekien zer pentsatu. Eta errudun sentitu zen, denboraz heldu ez izanagatik. Gau eta egun egiten zuen lan, faktura madarikatu horiek eta semearen beharrak ordaindu ahal izateko, semea joaten ari zitzaion bitartean.



Aita Parisetik heldu zen. Beharbada erruduna bera zen, dena atzean utzi eta lanean mailaz igotzeko Parisera joateagatik, eta bere semeari eman behar zion arreta ez emateagatik. Semeaz ahaztu zen.

Ama eta aita, elkar ikusi zutenean, eztabaidatzen ibili ziren, errespeturik gabe. Erruduna bietako nor zen jakin nahi zuten. Azkenean, ondorio batera heldu ziren: semearen arazoa bakardadea zen, izan ere, bai aitak, bai amak lan asko egiten zuten.

Eztabaida hori guztia bukatutakoan, elkar besarkatu zuten eta barkamena eskatu zioten batak besteari. Soluzioa denok talde bat osatzea izango zela pentsatu zuten, nahiz eta bananduta egon.

Ordu batzuk geroago, Alainez begiak ireki zituen. Argi-izpi batek eman zion begietan esnatu berritan, eta pixka bat ikaratu zen. Ez zuen ulertzen non zegoen. Ama eta aita, biak, ikusi zituen alboan. Baina bere tristezia amaiezina zen, izan ere, bera elikatzeko, gorputza hainbat kabletara konektatuta ikusi zuen eta horrek bere nahia atzeratu egingo zuen; beraz, negarrez hasi zen.

Egun batzuk geroago, alta eman zioten. Aitak etxe bat bilatu zuen Alainen etxetik gertu, eta lan berria ere topatu zuen. Amak ere lan gehiegi egiteari utzi eta semeari arreta gehiago eskaini zion. Gurasoek Alain terapia batera eraman zuten, astean bi aldiz. Ahaleginak eginda, egiten ari zena ez zela batere osasungarria ulertu zuen Alainez, bizia kentzeko bakarrik balio zuela. Eta terapia horren bidez ulertu zuen, bere ametsa bete ahal izateko, ez zuela zertan bizia kendu. Gogotsu ikastea, bizitza bizitzea eta zoriontsua izatea zen gakoa. Bizitza imajinazioarekin bizitzeak hegan egiteko ahalmena emango dizu, bai gora bai behera eginda, nahi duzun eran.

Urte asko pasatu ondoren, amaren eta aitaren laguntzaz, Alainez nahi zuena ikasi ahal izan zuen, pilotatzen, hain zuzen ere; eta hori da gaur egun bere lanbidea, astero eta egunero egiten duena, orain bai. Helburua beteta!

ARRASTO URDINXKA

Cynthia Rioja de Diego
Artxandape Ikastola HLBHIP

“**E**z dio axola espazioan eta denboran hain urrun egoteak. Gizakiek “arima” deitzen dioten hori eduki badaukadanez, berriz jaio eta zure bila joango naiz. Jarraitu iezaiozu nire arrasto urdinxkari.

Laster arte. Maite zaitut.”

(...)

Euriaren azpian korrika zihoan, neguko gau hotz hartan oinutsik. Hankak nekatuta zituen. Besoak zabalik hartzen zuen iparraldetik zetorren brisa, eta neskatoaren bizkarrean erortzen zen trentzako ile ilun luzea laztantzen zuen. Ez zekien non zegoen, ezta nora zihoan ere. Baina erabat libre sentitzen zen.

Askatasun sentimendu hura maite zuen, bere arima hainbat hamarkadatan preso egon izan balitz bezala. Espiritu baikorra zuen, eta mundua ikuspegi miresgarritik ikusten zuten begi urdin ederrak ere bazituen. Elkarreragin txiki



bakoitzaz gozatzen zuen, keinuez eta ikusmenaz. Horrelakoa zen Aoi, determinazio handiko neskato bat, beti irribarreka zegoena.

Poliki-poliki gelditu egin zen, gauaz gozatzeko, hainbat postu eta denda zituen jendez beteriko kale handi argiztatu batean zehar zebilela. Bakarren batek edo bestek begiratu egiten zioten itxurarengatik, baina ez zuen ezer esan nahi, ezta kexatu nahi ere.

—Leslie jauna! —postuan jendeari janaria zerbitzatzen ari zitzaion langileetako bat adeitasunez agurtu zuen. Gizonak, aurpegian irribarre bat zuela, eskua leun-leun astinduz itzuli zion agurra.

—Berriz ere oinutsik eta guztiz bustita? Bene-benetan, sekulako hotza jasaten duzu, neska —esan zion gizonak.

Aoik eserleku bat hartu zuen postu txikiko aulki altu batean.

—Hotza psikologikoa da —erantzun zion Aoik.

Lesliek barre egin zuen baieztapen hori entzunda.

—Oinetakoekin irrist egiten dut euritan korrika egiten dudan bakoitzean —gaineratu zuen neskatoak.

Gizonak buruarekin ezezko keinu bat egin zuen, neskaren azalpen tontoengatik.

—Zer hartuko duzu gaur?

—Katilu bete txokolate bero, mesedez.

—Izan daitezela bi, nik ordainduko dut —esan zuen gazte batek. Izerditzeko jertse beltza zeraman jantzita. Mutikoaren goiko gorputz-adarrak, gorputz-enborra eta burua estaltzen zizkion; aurpegia erdi agerian zuen.

Aoik berehalako curiositatea sentitu zuen ezkerreko aldean eserita zegoen pertsona horren inguruan. Mutilaren itxura berearen antzekoa zen, eta gonbita ere ez zen Aoiarentzat deigarria izan.

“Mutiko hau ezagutzen dudala esango nuke, ez dela gure bideak gurutzatzen diren lehen aldia.”

—Barkatu, neska, edaria hoztu egingo zaizu —esan zuen txanodun gazteak Aoi distrahituta zegoela ikusi zuenean.

Aoik katilua hartu eta zurrutada handi bat eman zion, mutilari barre txiki bat eragiten zion bitartean.

—Oraindik bero dago, neskato, erre egingo zara —esan zion mutikoak irribarreka, edo hori uste zuen Aoik, ezin baitzuen bere aurpegia ondo ikusi.

—Nire izena Aoi da. Nirekin formalitateak alde batera utzi ditzakezu —aurkeztu zuen bere burua adeitasunez.

—Zure izenak zure begien kolore urdinxka iradokitzen du, ala oker nabil?

—Ikusten dudanagatik behatzaile ona zara —egin zion irribarre Aoik.

—Bai, egia da.

“Nola jakin dezake hori?”

—Mosedez, deitu iezadazu Isaac.

—Hemendik aurrera, lagunak izango gara. Eta lagunek elkarrekin erokeriak egiten dituzte, ezta? —Aoi jesarrita zegoen aulkitik altxatu egin zen jauzi batez, txokolateari azken zurruta ematen zion bitartean.

—Zeri buruz hitz egiten ari zara orain, neska? —galdetu zion Isaacek.

—Ez naiz lotsatia, gezurti. Ez dut ilea busti nahi, ez naiz zu bezain gogorra hotzaren aurrean, neska ero.

“Beste bizitza batean ezagutuko banu bezala.”

—Ikusten dut ez nintzela zurekin nahastu, benetan jarraitzen ari nintzen arrasto urdinxka zara —luzatu zion eskua mutikoak.

—Ez nago ziur, baina uste dut hainbat mendez egon naizela zure zain —Aoik
Issacen eskua hartu zuen, begirada mutikoaren begietatik mugitu gabe. Neskak
bazekien. Benetako zorotzat jo zezaketen, baina bazekien hura egia esaten ari zela.

—Pozten naiz zu berriro ikustear, Isaac.

“Istorio bat amaitzen denean, beste bat sortzen da. Arimak berriro elkartu egiten dira, modu naturalean erakartzen dira berriro. Berriz idazten dute erdizka utzi zuten amaiera. Arrastoa jarraitzen bakarrik jakin behar dute gizakiek.”

BIZITZAREN SEKRETUAK

Aiur Onaindi Bilbao
Karmelo Ikastola IPI

Negu naiz, amarekin bizi den nerabea. Baina hau ez da beti horrela izan. Txikia nintzenean, aita eta amarekin bizi nintzen, familia bat ginen. Zoritxarrez, bizitza asko ez dira ipuinetan irakurtzen dizkiguten istorioak bezain politak. Umeen bizitzan sarritan helduek ez dute onurarik ekartzen eta egoera gogorak bizi behar izaten ditugu.

Nire aitari asko gustatu izan zaio beti nirekin bakarrik egotea, nirekin jolastea; baina niri bere jolasak arraroak egiten zitzaizkidan. Batzuetan mina eman, eta normala zela esaten zidan, lasai egoteko, pasatuko zitzaidala. Berarekin bakarrik jolasten nintzen horrela eta gure arteko sekretua zela esaten zidan; pertsona bereziekin bakarrik jolasten dela horrela eta ez zaizkiola jolas horiek inori kontatu behar. Eta, noski, nire aita zenez, nik horrenbeste miresten nuen aita zenez, kasu egiten nion; izan ere, pertsonarik gustukoena nintzen berarentzat, eta bera nirekin pozik ikustea gustatzen zitzaidan. Kaleko eta familiako guztiekin oso pertsona ona, dibertigarria eta alaia zen. Berarekin txantxak eta algara ziurtatuta zeuden, eta jendeak asko maite zuela ikusten nuen; baina ni berarekin ez nintzen seguru sentitzen. Amarekin eta amaren aldeko aitita-amamekin egoteak lasaitzen eta alaitzen ninduen; eta kalean ikusten nuen aita alai, jakintsu, dibertigarri, besteenganako errespetu handia zuenak eta guayak nirekin bakardadean jolasteko gogorik ez izatearekin egiten nuen amets.

Egun batean, nik inongo susmorik izan gabe, banatu egingo zirela esan zidaten gurasoek. 6 urte nituen orduan, eta oso pozik jarri nintzen, argi bainuen aitak mina ematen zidala. Ez nekien nola azaldu sentitzen nuena; ez ninduen jotzen, nirekin goxoa zen..., baina bere konpainian ez nengoen lasai eta eroso. “Amarekin biziko naiz behingoz!” “Amaitu dira aitaren jolasak!” pentsatu nuen. Gauzak horrela, solasaldiaren bukaeran, ez nuen esan zidatena espero, ez: zaintza partekatuan haziko ninduten nire gurasoek! Alegia, aste batean amarekin biziko nintzen eta bestean aitarekin. Baina inork ez zidan ezer galdetu: ez nola bizi nahi nuen, ez nola egongo nintzen hobeto, ez nola sentituko nintzen lasaiago eta seguruago... Inork ez zidan entzun, bizipenik eta sentimendurik gabeko pertsona banintz bezala tratatu ninduten. Eta horretan guztian, ulertzen ez nuen beste zerbait ere bazegoen: nire aitarekin bakarrik egotera derrigortuko ninduten!? Biok etxe batean hainbat orduz bakar-bakarrik!??? Beldurra nire gorputzaren jabe egin zen!!!

Negar asko egin nuen. Ez nuen ezer ulertzen. Oso gogorra egiten zitzaidan dena. Baina egoera berriari aurre egiteko indarra hartu nuen; eta amari eta bioi zerura begira egotea gustatzen zaigunez, gauetan izarrei begira gabon esango niola promes eginda, guztia modu positiboan hartzen saiatuko nintzela esan nion. Jada, aitaren jolasetara ohituta nengoenez, ez zen horrenbesterako izango, eta gainera aste batzuetan libre egongo nintzen! Edo akaso, aitak, amarengandik libratuta, nirekin bizi nahi bazuen, agian, gure arteko sekretuak alde batera utzi eta nire ametsetako aita agertuko zen eta denok hobeto egongo ginen. Ez nekien!

Baina egoerak ez zuen hobera egin: aitarekin egunak luzeak eta gogorrak ziren, eta edozein aitzakia zen ona lagunekin parkera ez joateko eta bere gustuko jolasetan ibiltzeko edota “laztanak egiten” egoteko. Berarengandik ihesean, ezkutaketan, bakardadearen bila ibiltzen nintzen. Oso txarto pasatzen nuen; askotan, beraren etxetik alde egiteko desioa agertu eta gauetan negar egiten nuen.

Aitarekin bizitzen ari nintzena amari hasieratik kontatzeko beharra izan nuen, baina ez nekien nondik hasi, nola azaldu, nik neuk ere ez bainuen ezer ulertzen. Aita oso atsegina zen denekin, baita, behin banatuta, amarekin ere. Ni asko maite ninduela esaten zidan behin eta berriz, eta pertsona goxoa zen nirekin, baina ez zitzaidan gustatzen. Amaren maitasunak ematen zidan bakea behar nuen nik, hor bai, amaren altzoan gauzak erabat desberdinak ziren, seguru eta lasai sentitzen nintzen.

Azkenean, amari berarekin bizi nahi nuela esaten hasi nintzaion, aitaren etxetik irteteko beharra nuela. Eta hasieran, egokitze denbora behar nuela esaten bazidan ere, egun batean, jada ezin nuela gehiago esan nion, aitaren jolasak eta laztanak ezin nituela jasan, aitak txikitatik jolas sekretuak zituela nirekin. Amak hasieran ez zidan ulertu; baina, jolasak zertan zeutzan azaldu nionean, zur eta lur geratu zen. Ezin zuen sinistu! Amak oso ondo ezagutzen nau eta badakit berak ere oso txarto ikusten ninduela aspaldi, baina sekula ez zuen imajinatuko nire ahotik egun horretan irten zena entzungo zuenik aitaren inguruan! Eta orduan hasi ziren mediku behaketak eta hortik aurrera etorriko ziren beste hainbat bizipen deseroso, eta abar.

Amak manipulatu egin ninduela zabaltzen hasi zen aita, beraren kontra jarri ninduela, ez zuelako inoiz beste bikotekide bat izango eta bere umetxoarekin egunero

ez egotea txarto zeramalako. Niri ere esan zizkidan horrelakoak eta gehiago, eta baita gure sekretua gauza naturala eta polita dela aita-alaben artean, baina ezin nuela berriz kontatu. Nire ama bezalako pertsonak ez dituztela horrelako gauzak ulertzen, ez dakitela bizitza gozatzen... Ulertu ez nituen beste hamaika gauza ere esan zizkidan. Amaitzeko, inork ez zidala sinetsiko eta gure sekretua bukaerara arte gordeko zuela esan zidan. Eta barkatuko didazue, baina ni oso pertsona lasaia banaiz ere, eta biolentzia batere gustuko ez badut ere, aitaren hitz horiek erabat berotu ninduten barrutik eta bere burua lurraren aurka txikitzeko gogoa etorri zitzaidan. Alegia, nire aitak min handia egin zidan eta barruan nuen amorru eta min guztia atera zitzaidan momentuan. Ukabilak indar guztiarekin estutu nituen, ez nuen besterik egin; hau da, kontrolatu egin nintzen, berriz ere.

Tristeia den arren, ume baten hitzek ezer gutxi balio dute gure gizartean, amari lotuegi egoteagatik edota arreta emateagatik edozein istorio beldurgarri asmatzeko gai omen gara (kasu honetan ni neu)! Eta, noski, lelokeria hauekin amaitzeko, umearentzat osasuntsuena biekin egotea dela esan izan didate behin eta berriz. Baina gezur galanta!!! Umeok oso ondo dakigu bereizten nork zaintzen gaituen! Nork laguntzen digun hazten eta bizitza honi aurre egiten!! Eta pertsona baten biologiari esker etorri izanagatik ere, ez aitak, ez amak ezin du umearekin nahi duen moduan jolastu! Barkatuko didazue, baina, askotan, gu, umeok, zuek, nagusiok, baino azkarragoak eta helduagoak gara, eta horrelako erabakiek mina bakarrik ematen digute!!!

Egun batetik bestera, pertsona batekin hitz egiteko aukera izango nuela azaldu zidan amak, eta gurasoekin nuen harremanari buruz nahi nuen guztia kontatu ahalko niola. Errespetu osoarekin eta nire adinerako ume heldua eta arduratsua naizela adieraziz hitz egin nion, baina oso bizipen desatsegina izan zen: galdera asko, barrutik kontsumitu egiten nauten gustuko ez ditudan eta ondorioz ia ahaztuta nituen oroitzapen txarrak atera zizkidan! Gainera, gizon honek aita defenditzen zuen behin eta berriz, eta nik kontatzen nionari balioa kentzen saiatzen zen, esanez guraso batzuek bere seme-alabak jotzen dituztela eta ni aita maitekor batengatik kexaka nenbilela... “Eta hau da hainbeste denboran entzuteko itxaroten egon naizena?” pentsatu nuen. Gero, aita ere sartu zen gela hotz hartan, eta bion artean hitz egindako guztia kontatzen hasi zen, eta oso jatorra den itxurak egin zituen. Egun hartan ezagutu ninduen gizonak hau esan zidan: “Ikusi duzu? Zure aita oso pertsona ona, jakintsua eta eskuzabala da; gainera, piloa maite zaitu.” Barruan sua piztu zitzaidan; ezin nuen gehiago.

Momentu horretan, minari ezin eutsita, hauxe esan nuen: “Baina, burumotz hori! Ez al duzu entzun nire aitak jendea oso ondo manipulatzeko dakiela eta, oso pertsona ona ematen duen arren, txerri hutsa dela, ala zer? Zein da zure helburua? Niri bizitza izorratzea ala niri bizitza erraztea eta ni ondo egotea? Ez duzu lan honetarako balio, aurreiritziak badituzu. Ume baten “familia” ezin dela apurtu esateko etorri zara hona, eta hori lortzeko aukerarik onena banaketa baten aurrean zaintza partekatua izatea dela diozu? Baina ez al zara konturatzen tipo hau ez dela nire familia!? Ez behintzat zaindu behar nauen familia! Ez nau maite, baina nire zaintza nahi du nirekin nahi duena egiteko eta ez duelako nire amaren azpian

geratu nahi! Egiten duen guztian izan behar da lehenengoa eta irabazlea! Izarra! Bere harrotasuna elikatzen zabiltza eta ez ni zaintzen! Nire bizitza betiko izorratzen zabiltza! Zoratu egingo naiz erabat!”

Barrenak hustutzeari esker konturatu zen epailea nire aita ez zela ematen zuen pertsona; eta umetan urte gogorak pasatu izanak pena ematen ziola esan zidan. Barkamena ere eskatu zidan lehenago kasurik egin ez izanagatik. Lasai egoteko esan nion, banekiela nire aita oso antzezle ona dela eta zaila dela harrapatzea elkarriketa soil batean gezurretan ari den edo ez; baina, mesedez, umeak gehiago entzuteko eta serioago hartzeko ere eskatu nion.

Goiz hartan, lasai, indartsu eta irribarre batekin esnatu nintzen eskolara joateko, nire bizitzako amets gaiztoak bukaera polita izan baitzuen gau hartan.

Eta bihar, hainbestetan amestu dudana eguna helduko da! Ezagutzen ez dudana helduarekin nire barrenak husteko eguna! Zein bukaera izango du hainbeste gauetako loak hartu dizkidan ametsak? Gozoa ala gazia? Zein norabide hartuko dute nire nerabezaroaren hurrengo urteek? Batek jakin! Bizitzaren sekretuak!



Elur-Malutak

Ane Jiménez Calvo
Ikasbide HLBHIP

Bazen behin, Izoztutako Ametsak izeneko lantegi bat, goreneko hodeietan zegoena. Bertan, elfo zuriek egiten zuten lan, elur-malutak egiten; diseinatzen, hobeto esanda. Neguan, elfo zuriak egunero altxatzen ziren goizeko bostetan lanean hasteko.

Osteguna zen, eta beti bezala, Garaziren iratzargailua bost minutu arinago jota zegoen. Ohetik jauzi bat emanda altxatu, eta lan egitera! Elfo guztiek Garazi miresten zuten zuen ahalmen artistikoagatik. Egiten zituen lanak miresgarriak ziren! Behin, ostadar forma zeukan elur-maluta bat egin zuen, eta kolorez aldatzen zen!

Beste behin, lanpostura ailegatu zenean, albiste bat eman zuten bozgorailuetatik: “Sentitzen dugu, baina berri txarrak ditugu. Berotze globala izeneko arazo bat da, gizakiek eragindakoa. Dakizuenez, kexa guztiak hona etortzen dira, eta momentuz hauek bidali dizkigute: Itsasoak bere pisua handitu egin dela esateko idatzi digu; eta Glaziar Jaunak ia bere familia osoa hil egin dela adierazteko, hau da, urtu egin direla esateko. Bolondres bat behar dugu hau guztia konpontzeko. Interesatuak, mesedez, joan kuartel nagusira. Eskerrik asko zuen denboragatik.”



Hori entzundakoan, Garazi segituan abiatu zen kuartel nagusira. Baina harrituta geratu zen bolondres bakarra zela ikustean. Haizea, Izoztutako Ametsen zuzendaria, asko poztu zen Garazi ikustean. Bazekien Garazik zeukan irudimena paregabea zela momentu horretan.

Gero, buelta bat ematera joan zen izotzezko makinak zeuden tokira, eta bertan ikusi zuena ez zuen batere espero. Ez zegoen izotzik, ura baizik! Momentu horretan konturatu zen arazoaren larritasunaz.

Egun horretan, kezkatuta joan zen ohera, ez zekielako konponbidea aurkituko zuen. Gauean amets arraro bat izan zuen, non lurreko ume batzuk agertzen ziren eskularruekin, txanoarekin eta bufandarekin. Bazirudien elurrari itxaroten ari zirela, baina orduak eta orduak itxaroten egon eta gero, haien etxeetara bueltatu ziren oso triste.

Hurrengo goizean, ohetik altxatu eta gero, denbora nahikotxo egin zuen Garazik pentsatzen. Azkenean, Lurrera jaistea erabaki zuen, bertako umeei berotze globala gelditzeko zer egin ahal zuten azaltzeko.

Lurrean, bere ametsetan agertzen ziren ume berberak ikusi zituen, zerura begira. Orduan, Garazi hurbildu egin zitzaaien eta hauxe esan zien:

—Kaixo, nire izena Garazi da eta hau jakitea nahi dut. Zuek zarete etorkizuneko belaunaldia. Zuen esku dago Lurra salbatzea, zuek jarri behar dituzue indarrak eta gogoak arazoan, eta nahi baduzue nik lagunduko dizuet. Adibidez, ona hemen egin ahal dituzuen gauzatxo batzuk:

1. Energia aurreztu.



2. Autoa erabili beharrean, oinez, bizikletaz edo garraio publikoan joan zaitezke.



3. Ura aurreztu, hortzak garbitzen ari zareten bitartean, txorrota itxita.



4. Berrerabili eta birziklatu.



5. Gauza bakoitza behar den koloreko edukiontzira bota; adibidez, patata frijituen poltsa edukiontzi horira.



6. Saiatu plastikozko botilak ez erabiltzen; berrerabili ahal direnak baino ez.



Horiek dira nire aholkuak, neska-mutilak, eta ez ahaztu inoiz hauxe: “Gauza txikiekin gauzarik handienak egiten dira”. Agur, eta zorte on!


Eta horrela lortu zuen Garazi elfo zuriak ume txiki batzuek gauza handiak lortu ahal izatea.

AMAIERA

BILBOKO ONTZIOLEN SEKRETUA

Elena Calvo Basterra
Ikasbide HLBHIP

Azaroaren 20ko gauean arraro samar sentitu nintzen, eta, arratsaldero bezala, paseatzera joan nintzen txakurrarekin eta emaztearekin. Asteko egun bat zen, biok lanetik irten ginen eta, gure urteurrena zela-eta, Sugarra jatetxera afaltzera joan ginen. Barrura sartzerakoan, Jon lankidearen dei galdu bat nuela konturatu nintzen.



Nire liburu-denda ixteko orduan deitu zidan, liburu zahar bat aurkitu zuela esateko: Bilboko ontziolen sekretuak. Ez nion garrantzi handirik eman eta emaztearekin hitz egiten jarraitu nuen etxera iritsi arte.

Biharamunean, lanera heldu nintzenean, Julenek, nire beste langile batek, liburu horren izena errepikatu zidan, eta horrek harritu egin ninduen. Azalari begiratu nionean, Euskalduna ontziolen marrazki bat agertzen zela ikusi nuen. Gaur egun Guggenheim museoa eta Bilboko Armiarma eskultura dauden lekuan egon omen zen. Liburua irakurtzen hastea erabaki, eta bi egunetan amaitu nuen. Barruak asko harritu ninduen. Galdera asko nituen. Julenek ere gauza bera esan zidan; liburua irakurri zuela eta berak ere bazituela galderak.

Liburua ikertzen hasi ginen, eta konturatu ginen, orain dela urte asko, nire liburu-denda dagoen leku berean, hilketa kasu arraro bat egon zela. Antza denez, gizon bat hil zuten mafiaren akordio baten ondorioz. Bost gaztez osatutako Italiako mafiaren kontrabandista talde bat heldu zen Bilbora 1928ko azaroaren 25ean, gizon horri Savoiako dinastiako brotze bat erosteko asmoz.

Hildako gizona Cristóbal Julián García zen, enpresa baten jabe zen Bilboko abokatua. Antza denez, bera ere kontrabandista zen. Kasua ikertzen zuen poliziaren txostenak bere etxean hainbat bitxi eta balio handiko objektu historiko aurkitu zituztela zioen.

Poliziak gizonaren bulegoan ere aurkitu zituen goi-kargu politikoen informazio arriskutsua eta hainbat herrialdetan poliziak bilatzen zituen kontrabandista ospetsuen informazioa zuten hainbat gutun.

Azken gutunean, Italiako mafiosoek eta Cristóbalek zuten akordioari buruzko informazioa jasotzen zen, non Espainiako Amadeo I.arena zen urrezko eta zilarrezko paparreko bat eman zien 16.638.600 pezetaren truke.

Cristóbalen hilketaren ikerketa amaitu, gangsterrak espetxeratu eta hainbat hilabete geroago, italiarrei saldutako paparrekoa faltsua zela ikusi zen. Horregatik, hain zuzen ere, hil zuten enpresaria.

Cristóbal ez zen etorkizunaz arduratzen, oraina ondo eta luxuz beterik bizitzeaz baizik; eta horretarako, normalean, goi-mailako gangsterrak engainatzen zituen ondorioen beldurrik izan gabe. Baina, oraingoan, bukaera desberdina izan zen, italiarrak beren herrialdera itzuli eta engainua aurkitu eta aste batzuetara, Cristóbal hilik aurkitu baitzuten bulegoko mahaian, buruan zauri bat zuela. Gizon haiek hain ziren errukigabeak, non sikario bat kontratatu zuten hura zaintzeko.

Cristóbal 1928ko abenduaren 13an hil zuten bulegoan zegoen kristalezko ron botila hautsita, buruan kolpe batek eragindako hemorragia bat dela eta. Heriotzaren ondorioz, dena aldatu zen bere ezagunen bizitzan. Enpresa itxi egin behar izan zuten ondorengorik ez zuelako, eta langile guztiek lana galdu zuten.

Egia osoa jakin ondoren, nire lankide Joni kontatu nion, eta harrituta geratu zen. Biak saiatu ginen kasurako pista gehiago bilatzen, baina asko aurkitu genituen arren, ez zuten zentzurik guretzat.

Urtebeteko ikerketaren ostean, Cristóbalek idatzitako gutun eta mapaz betetako kutxa bat aurkitu nuen. Bertan esaten zuen jatorrizko paparrekoa beste bitxi batzuekin batera lurperatu zuela ontziola zaharretan, gaur egun Guggenheim dagoen tokian.

Gaia bertan behera utzi eta bizitzarekin segitzea pentsatu nuen, ezer gertatuko ez balitz bezala; baina konplikatua izan zen, kontu horrek nire buruan burrunba handia egiten zuelako. Jonek ere ikertzen jarraitu nahi zuen. Horretan tematu zen. Eta aurrera jarraitu zuen zerbait interesgarria aurkitu zuen arte. Aste batzuz ikertzen aritu ondoren, dirutza zegoen toki zehatza aurkitzea lortu zuen. Egin behar izan genuen lehenengo gauza harrapakina inor ohartu gabe biltzeko plana egitea izan zen, eta hori konplikatua zen, izan ere, leku zehatza Bilbo osoan bisitatuenetakoa zen, Bilboko Armiarma. Ez zehazki Armiarma, baizik eta handik oso hurbil dagoen leku bat.

“Ea, Armiarma ‘laku’ txikiaren ondoan dago; beraz, kalkuluen arabera, altxorrak Salbeko zubira doan zubiaren azpian egon behar du”, esan zuen Jonek.

Besterik gabe, haren argibideak jarraitu nituen, eta bion artean altxorra eskuratzeko plana egin genuen inor ohartu gabe. Pentsatu genuen goizeko 3rak edo 4rak inguruan izan behar zuela, ez zelako oso ohikoa Bilboko inguru horretan gaez jende asko ibiltzea.

Iritsi zen eguna. Liburu-dendatik batera irten eta Jonen etxera joan ginen bilaketa guztia prestatzeko, denak perfektua izan behar baitzuen. Goizeko ordu bi eta erdiak ziren, lasai irten ginen etxetik, presarik gabe, gure plana hutsezina baitzen.

Cristóbalen lantegia zegoen tokian, gaur egun, dirutza zegoen bitxietan. Puntu zehatza bilatu genuen, eta aurkitu genuenean, zubian zeuden harriak kentzen hasi ginen. Oso zaila izan zen kentzea, baina dena aurrez prestatuta genuen eta tresna egokiekin etorri ginen.


Altxorra aurkitu genuen arte, ia ordu eta erdi egin genuen harriak kentzen; eta, azkenean, aurkitzea lortu genuen. Ezin izan genion ilusio eta poztasunari eutsi.

Konturatu gabe, ia argitu zuen egunak, turistak eta peleginak agertzen hasi ziren eta horrek kalte egiten zigun. Handik korrika atera eta liburu-dendako bulegoan giltzaperatu ginen.

Egun osoa eman genuen erabakitzen poliziari esan edo bitxiak arte-galeria bati saldu dirudunak izateko. Azkenean, herritar onak izatea eta altxorra ematea erabaki genuen. Agenteak harrituta geratu ziren egindakoarekin, ez baikinena super detektibeak.

Hilabete beranduago alkatearen e-mail bat jaso nuen, argitu gabeko hilketa kasu honetan laguntzen egindako ahaleginagatik eskerrak emateko, baita antzinako bitxi horiek aurkitzeagatik ere.

Azkenik, bitxien jabe ziren dinastien ondorengoek Joni eta niri, eskerrak emateko, sari bat ematea erabaki zuten. Dirudun bihurtu ez ginen arren, hobeto bizitzeko diru nahikoa lortu genuen, eta Bilboko hurrengo belaunaldiei kontatuko dieten “Abentura Handi” honegatik egin ginen ospetsu.



D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



ETA EZ BAZAUDE?

Uxue Aramburu Rodríguez
Ikasbide HLBHIP

Esnatu egiten nau goizean zure lagunekin telefonoz hitz egiten entzuteak. Jaikitzen naizenean, beti egiten dizut garrasi, txikitan bezala:

— Egun on!

Eta zuk barre egin eta esaten didazu:

— Egun on, *tesorito*.

Ea gaur kafe normala edo kafeinagabea nahi dudan galdetzen didazu, eta nik barreka erantzuten dizut.

Dutxara joan, txorrota ireki eta ur beroa noiz aterako den zain nago.

“Joateko beldur naiz. Itzultzeko beldur naiz. Izan ere, beharbada, ordurako zu ez zara zain egongo”.

Isilik. Urak erortzen jarraitzen du.

“Ohartu naiz eraikin hau beti izan dela nire etxea hutsik dagoenean”.

“Janaria motxilan sartuko dut”.

“Berriro deituko dizut zuri deitzea ahaztu zaidala esateko”.

“Joaten den lehenengoa izango naiz. Berriro eta berriro”.

Horretan guztian pentsatzen, mundua txiki-txikia bihurtzen zait, amona; baina ez uzkuertzen ari zarelako, gehiago behar zaitudalako baizik.

—Badakit, *tesorito*, beti izan zarela oso bakartia. Beti egiten duzu bidea zuk bakarrik, berdin da bidean zer harri aurkitzen dituzun; eta ez dago inor geldi zaitzakeenik. Baina, zaindu, nik badakidalako noiz zauden gaizki. Beti esaten diot zure amari: zure alaba itzalita dago, ez da bera.

Mahaia, mahai-zapia, edalontziak, ur hotza, sardexkak eta ezpain-zapiak jartzen ditugu, eta oraingoan zergatik noan azaltzen dizut.

Zuk prestatutako jaki goxo-goxoak jaten ditugu.

—Ez kezkatu, dena ondo joango da. Zuk egin zure bizitza. Badakizu, itzultzen zarenean, zure sardexka, platera, ohea eta izara garbiak izango dituzula hemen.

Telebista itzali, sofatik jaiki eta lotara joaten saiatzen zara, baina beldur naizela esaten dizut; itzultzen naizenean, zu ez egotearen beldur. Ezin izango zaitut gehiago besarkatu. Ezin izango didazu berriro zure bizitzaz hitz egin. Aholku gehiago entzuteko aukera galduko dut, edo ezin izango ditut zure landareak ureztatu.

Hortzak garbitzen ari naizenean, korridoretik begiratzen didazu, barre egin eta esaten didazu:

—*Tesorito*, baina zertarako pentsatzen duzu gauza horietan. Tira, ez egon triste. Nik badakit beti itzultzen zarela.

Isilik.

—Eta, inoiz, itzultzen zarenean ez banago, zuk ureztatu landareak.

Barre makal batek egiten dit ihes.

—Zuk ez utzi besteak maitatzeari.

Begiratu eta gure begiek elkar ukitzen dute. Ihes egiten didaten malkoak ezkututzen saiatzen naiz.

—Tira, orain goazen ohera, gauak oso tuntun jartzen dira eta.

—Gabon, amona.

—Gabon, *tesorito*.

—Bihar arte.

Eta argia itzaltzen da.

ARTEZ BETETAKO HILKETA

Mikel Ortiz Ramírez
San Adrian BHI

Izan al zara inoiz onena zerbaitetan? Izan al duzu arlo jakin batean besteengandik nabarmentzen zintuen ezaugarriren bat? Ezberdina, maitatua, berezia zinela sentiarazten zintuztenak? Zure erantzuna baiezkoa izan bada, nire istorioa apur bat hobeto ulertuko duzula uste dut.

Leonardo Lopez dut izena. Hamasei urte ditut, eta, momentuz, batxilergoko lehen maila egiten ari naiz San Rodrigo institutuan. Txikitan, nire gurasoek artearen munduan sartu ninduten. Are gehiago, jaio aurretik ere bai; izan ere, nire aitak Leonardo izena Leonardo da Vinci margolari eta asmatzaile ospetsuaren omenez jarri zidan. Ia pintzela eskuan dela jaiotzeak eragin du nire margotzeko teknika nahiko ona izatea. Baina, hala ere, ez daukat amak *oparia* deitzen dion hori. *Oparia* erosi ezin den talentua da. Ezaugarri horrekin jaio egiten zara, zerbaitetan oso ona izatea eragiten dizun hori da. Eta horregatik, jaio nintzenetik izan nuen, amaren ustez, arterako *oparia*.

Lehiaketaz lehiaketa ibiltzea izan da nire bizitza. Guzti-guztiak irabazi ditut, ez dut inoiz bat ere galdu. Amak beti esaten du *opariari* esker dela. Eta hala izatea nahi



nuke. Guztia errazagoa izango zen. Baina nire gurasoek ez dakitena da ez nintzela arterako talentu bereziarekin jaio. Egia esateko, ez neukan amak esaten zuen *oparia*.

Artean izan nuen arrakasta esfortzuaren eta profesionaltasunaren ondorioz izan zen. Egunero orduak eta orduak igarotzen nituen etxean margotzen, obsesio bihurtu zen arte. Margotzeko oihalik ez nuenean ere, edozein paper erabiltzen nuen praktikatzeko jarraitzeko: folioak, egunkariak, eta baita ezpain-zapiak ere. Lehiaketa berri bakoitzarekin, praktikatzeko denbora luzatu egiten zen. Eta irabazitako lehiaketa bakoitzarekin gurasoek niregan jartzen zuten presioa are pisutsuagoa zen. Dena gupil zoro bat zela zirudien, non gurasoek beren itxaropenarekin elikatzen zuten hainbeste min eragiten zidan presioa.

Eta horrela iritsi gara gaur egunera, San Rodrigo Institutuko Gabonetako lehiaketa artistikora. Lehen aldiz ospatuko da ostiral honetan, 16:30ean, institutuko irteeraren ondoan dagoen arte-galeria txikian. Eta, jakina, izena eman behar izan dut. Nire gurasoak bereziki zorrotzak dira nire lorpen akademikoekin, eta horregatik da oso garrantzitsua institutuak antolatutako lehiaketa bat ez galtzea.

Institutuan egon nintzen lehen egunetan, bigarren solairuko pasabide baten amaieran, ikasgela abandonatu bat aurkitu nuen nahi gabe. Zuzendaritzan galdetu ondoren, plastika gela zahar bat zela esan zidaten. Baina ezarri zen lege berri baten ostean, irakasgai horren eguneko orduak murriztu egin behar izan ziren, eta klasean nintzen lehen egunetan, ikasgela hori erabilerarik gabe geratu zen. Eta inork ez zuenez erabiliko, neure ikasgela bezala erabiltzea erabaki nuen.

Ikasgela handia dela esan daiteke, 45 metro karratu inguru dituen. Zorua egunkari-paperez beteta dago, nire pinturekin ez zikintzeko. Bi armairu handi daude ikasgelaren alde batean, nire material guztia gordetzeko, besteak beste: pintzelak, plastikozko edalontziak, akuarelak, pinturak, margoak, arkatzak, boligrafoak, klarionak eta abar. Gelaren beste aldean harraska bat dago, oraindik martxan dagoena eta materialak garbitzeko eta ur zikina botatzeko erabiltzen dudana. Hiru leihok betetzen dute atearen aurreko horma, eta gelaren gainerakoa paper zimurrez eta zirriborroz beteta dago.

Joan den ostiraletik, lehiaketaren berri eman zenetik, eskola ordu gehienak igaro ditut gela horretan. Baina margotzen dudan ezerk ez nau asebetetzen. Publikoaren begirada guztiak nire bizkarrean nabaritzen ditut, kritikatzeko. Beste artelan perfektu bat noiz egingo dudan zain. Bizkarreko mina dut, pintzela ere ezin dut altxatu; eta Daniel ere apuntatu da lehiaketan, hori da okerreana.

Daniel Gomez existitzen den pertsonarik jasanezinena da. Beti hain jatorra, laguntzeko prest, hain atsegina. Eta, gainera, oso ona da margotzen. *Opariarekin* jaio zela esan liteke. Berarena bai berezko talentua.

Gaur, atsedendian, nire ikasgelara joan naiz ea inspirazioa bueltatzen zaidan probatzera, baina ez dago modurik. Oso estresatuta nago, eta ezetz asmatu nor sartu den? Nire Daniel maitea!

—Kaixo, Leo —esan dit, bere irribarre inozoarekin—. Gela honetan sartzen ikusi zaitut, eta...

—Zer behar duzu, Daniel? —moztu diot, begirada zorrotz batekin.

—Ba, ikusi dut zeuk ere eman duzula izena arte-lehiaketan —aipatu dit, bere irribarre atsegina galdu gabe—. Eta zorte ona opa nahi dizut, oso gutxik eman dugu izena eta.

—Mila esker, agur! —erantzun diot, lehenbailehen joateko, eta nire lanarekin jarraitzen uzteko.

—Zer ari zara margotzen? —galdegin dit, margotzen ari nintzen oihalari begira—. Pertsona bat da?

—Pertsona bat dela pentsatzen duzu? Benetan, Daniel? —galdetu diot, era txarrean. Nire urduritasun-maila oso altua da momentu honetan, eta orain Danielen iruzkin tentelak entzun behar ditut artelanari buruz?

—Bueno, lasai mutil, barkatu. Baina ez duzu zertan horrela jarri. Banoa —esan dit, eta buelta eman du gelatik irteteko.

Baina ez, nik ez diot joaten utzi. Urduri jarri nau lehiaketa hasi zenetik, eta orain molestatzera etorri da? Ezta pentsatu ere! Amorruez beteta, haren kontra joan naiz, eta, Daniel bultzatu ondoren, lurrean zegoen egunkarietako batekin laprast egin du, eta, azkenean, harraskako izkinaren kontra jo du buruarekin.

Isiltasuna. Hori da plastikako ikasgela horretan entzuten den bakarra. Kanpoan, jolastokian dauden haurren hotsak baino ez dira entzuten. Gorri koloreko likido arrasto batek harraskaren kolore zuri-zuria zikintzen du. Eta arrasto horrek, lurreraino jarraituz gero, Daniel Gomez batxilergoko ikasle atseginarenean gorputzeraino eramaten zaitu. Haren aurpegi lasaiak odolez betetako ingurunearekin kontrastatzen du. Badirudi siesta txiki bat egiten ari dela. Baina, benetan, Daniel hil egin da; edo, hobeto esanda, Daniel hil egin dut. Ez dut neureganatu gertatu dena. Lehen margotzen ari nintzen koadroa orain Danielen odol zipriztinez zikinduta dagoela, horixe baino ezin dut hauteman. Baina odolak duen kolore gorri berezi horren ukituari esker, koadroak guztiz desberdina dirudi. Koadroa artelan ezin hobea bihurtu da! Ideia bat daukadala uste dut.

Ostirala da, 16:45 dira eta lehiaketa duela 15 minutu hasi da. Nire koadroa aurkezteko txanda heldu da. Daniel ez da oraindik agertu; polizia hiri osoan zehar ari da haren bila, baina horrek ez du garrantzirik orain. Publikoa nire zain dago. Benetako artelanak ikusteko gogo du. Jendearen artean nire gurasoak daude, noski. Egiten dudan guztia, esaten dudan guztia, margotzen dudan guztia ebaluatzeko prest. Aurkezleak nire izena oihukatu du, eta publikoa txaloka hasi da. Nire koadroa oihal zuri batekin estalita atera dut eszenatokira, eta asto gainean jarri dut. Orduan, oihala mugimendu batez kendu dut, nire maisulana agerian uzteko: eskola bateko ikasgela ilustratzen duen koadro bat. Zehazki, plastikako gela bat. Jende askok ez du ikasgela ezagutuko, gela abandonatu bat baitzen, denborak ahaztu zuena. Koadroa tonu gorrixketan margotuta dago. Baina oso ohikoak ez diren kolore gorriak dira. Ez dira pinturaren gorri artifizialak, baizik eta izaki bizidun baten odoletik datozen kolore gorriak. Daniel



izena zuen izaki bizidunetik, hain zuzen ere; koadroan ageri den gelan hil zen mutila. Eta koadroan arreta handia jarriz gero, gelako bi armairuetako batetik odol arrasto txiki bat ateratzen dela ikus daiteke. Nork daki barruan zer ezkutatu den?

Publikoa txaloka hasi da halako koadroaren aurrean. Nire gurasoen begirada bilatu dut publikoan, eta, aurkitu ditudanean, haien begiradetan dezepzio sentimendu bat dagoela sentitu dut. Orduan konturatu naiz ahalegin guztiek ez dutela ezertarako balio izan, ez direlako inoiz pozik egongo.

Bat-batean, kaleko leihotik sartzen diren argi urdin eta gorri batzuek argitu dute arte-galeriaren barrualdea. Jendearen txaloak isildu egin dira poliziaren sirena-hotsengatik. Bi emakume galerian sartu dira indarrez, eta batek oihu ozenean esan du: “Leonardo Lopez, Daniel Gomezen hilketagatik atxilotuta zaude. Esaten duzun guztia zure kontra erabil liteke.”

Merezi dudala uste dut. Estresa eta besteen iritziak gailendu egin dira nire buruan; inork jasan ezin duen estres-mailara iritsi naiz. Nahiko ironikoa da; izan ere, artea da jendeak bere sentimenduak askatzeko erabiltzen duen modua. Baina, nire kasuan, iritzi publikoaren menpe, lotuta, egoteko kate bat baino ez da izan. Amaitzeko, ikusleen aurrean makurtu naiz, nire maisulana ikusten duten bitartean. Honela deitzea gustatuko litzaidake: “Arte opariaren heriotza”.



MAMUTZAT HARTU NAUTE

Raquel Valle Monsalve
San Adrian BHI


“**I**rakasle bat iritsi da eskolara. Badirudi hemengo arauak irakatsi beharko dizkiogula”. Fitxak banatu ondoren, elkarri begiratu eta telepatiaz hitz egingo bagenu bezala, plan bat adostu dugu.

—Irakasle, ez utzi fitxarik atzeko mahai horretan, ez da inor esertzen.

—Ez egin bromarik, nahiz eta norbaitek asko ez hitz egin, ez du esan nahi existitzen ez denik.

—Baina hor ez dago inor.

Denok hasi ginen esaten ez zegoela inor; batzuek kezka-aurpegia ere jarri zuten. Irakasleari gaizki lo egin zuela sinetsarazi genion, “ez delako normala pertsona bat ikustea eserleku huts batean, mamuak ez baitira existitzen”. Azkenean, hainbeste ikaratu zen, non gaia utzi eta eskola ematen jarraitu genuen. Eskola amaitu zenean, ez zegoen arazoa argitzeko astirik. Gainera, txirrinak jo zuenean, mamuaren eserlekua hutsik zegoen, beti bezala.



Aste batzuen ondoren, aulkian inor ez zegoela ziurtatzen jarraitzen genuela ikustean, irakasle berria ea gure klasean zer pasatzen ari zen galdetzen hasi zitzaien beste irakasleei.

Mamuairen ikuspuntua

Lau urte daramatzat eskola berean, eta egun hauetan konturatu naiz ez naizela existitzen. Azterketa bat dagoenean, niri ez didate ematen. Horregatik errepikatu ditut hainbat ikasturte. Eskolako zerrendetan ere ez nagoela uste dut. Bikote-lana egin behar denean, jendeak barre egiten du nirekin tokatu zaionak lan guztia bakarrik egin behar duelako. Ez dakit ondo zer egin beharko nukeen.

Ingeleseko klaseetan, irakasle berriak asko begiratzen dit. Gairen bat azaltzen duen bitartean, adia galdurik egoten naizela konturatu dela uste dut, edo agian ez nau gogoko. Lehen egunean asko hurbildu zitzaidan, eta hain urduri jarri nintzen! Ez nekien zer esan. Azkenean, txirrinak jo zuenean, ziztu bizian joan nintzen gelatik.

Irakaslearen ikuspuntua

—Azalduko al dit baten batek zer gertatzen zaion gela honetan atzean dagoen ikasleari?

—Ez dakigu haurren arteko jolasa den edo benetan gertatzen ari den. Ikastetxean urteak daramatzagun irakasle guztiok ziurtatzen dugu ikasle bat dagoela eserita aulki horretan, baina denek esaten dute ez dagoela inor.

Ziur nago ikasleen txantxaren bat dela. Ezinezkoa da mutil hori ez existitzea. Zenbait ikasleri galdetu diet. Batek barrezka esan dit mamuak ez direla existitzen. Beste irakasle batzuekin hitz egin dut. Zerbait egin beharko dugu gertatzen dena ulertzeko.

Mamuairen ikuspuntua

Ez nintzela existitzen frogatu nahi nuen. Beraz, ikasgelan paperezko pelotak jaurtitzen hasi nintzaian inguruan nituen ikaskideei. Jaiki eta komunera joaten nintzen baimenik eskatu gabe, edo mahaien artean ibiltzen nintzen jendeak arbela ez ikusteko. Izan ere, inork ez dit begiratzen eta inor ez da molestatzeko egiten dudanarekin, irakaslea bakarrik.

Irakaslearen ikuspuntua

Urte hauetan *mamuaz* benetan arduratu den bakarra ni neu izan naizela ematen du. Maisuok ez genekien gaia nola konpondu. Orduan, *mamuari* berari galdetzeko ideia izan nuen. Beraz, egun batean, klasea eman behar nuenean, atzean zegoen eserlekura hurbildu nintzen.

—Kaixo, eskolako lehen egunean ez zinen aurkeztu; agian, lotsati samarra zara. Esango zenidake zure izena? —esan nion.

Ikasleren batek begiratu egin zidan, barre egiten zuen bitartean. Ziur zera pentsatzen ari zirela: “Aulki batekin hizketan ari da”.

Mamuak pentsatu zuen: “Zer esan behar diot nik? Ez nuela neure burua aurkeztu inork ez zidalako eskatu? Egon momentu batean; hitz egiten ari zaizkit? Jendeak ikusi eta entzun nazake!

—A... Ikusten nauzu? —esan zuen *mamuak*.

Hitz egin zezakeen! Oso goibel, urduri edo triste zirudien. Hala ere, une hartan nire lekura itzuli nintzen harriduragatik eta sentitu nuen beldurragatik. Gainerako irakasleekin ume horrek laguntza behar zuela erabaki ondoren, antolatu genuen plana martxan jarri genuen.

Ikasleen ikuspuntua

Duela egun batzuk, Matematikako irakasleak ez zizkion etxeko lanak eskatu Andoniri, ezta azterketa egiteko orririk eman ere; eta ez zuen bere izena esan zerrenda pasatzean; Fisikakoak, Biologiakoak, Literaturakoak... Irakasle guztiek Andoni existituko ez balitz bezala jokatu zuten. Berak eskua altxatzen zuen hitz egiteko, eta maisuak ez zion begiratzeko; komunera joateko eskatzen zuen, eta inork ez zion erantzuten. Hurrengo egunean, Haizeari gauza bera egin zioten; hurrengoan, Aitorri; hurrengoan, Edurneri...

Batzuk molestatu egin ginen; beste batzuei barregarria iruditu zitzaienten, egun bateko kontua zelako, ez asteetakoa, ezta hiletako ere. Klasean horri buruz hitz egin genuen, eta irakasleekin hitz egitera joatea erabaki genuen. Baina irakasle gelara iritsi ginenean, inork ez zigun atea ireki. Sartu ginenean, inork ez gintuen ez agurtu, ez begiratu, ezta ozen galdetu genuenean ere norbaitekin hitz egiteko. Bazirudien ez ginela existitzen. Horrek asko nahasarazi gintuen, ez genuen ulertzen zergatik portatzen ziren heldu batzuk hain modu arraroan.

Hurrengo egunean, lehenengo orduan, ingeleseko irakaslearekin izan genuen eskola. Sartu zenean, ingurura begiratu eta esan zuen: “Badirudi gaur ez dela inor etorri”. Atea berriro ireki eta irten egin zen. Berehala, gutariko bat zutitu eta korrika joan zen irakaslearengana.

—Zergatik zaudete irakasleok hain arraro egun hauetan? Aste batzuk daramatzazue ikaskide batzuei entzungor egiten. Ekitaldi edo azterketa berezia al da?

Ingeleseko irakasleak, ezer esan gabe, institutuko bilera-gela batera eraman gintuen. Bertan aulki batzuk zeuden prest, ikasgelatik irten ginenok esertzeko. Irakasleak ere bertan zeuden.

—Zergatik egiten diozue ez-ikusiarena atzean esertzen den mutilari? —galdetu zuten irakasleek.

—Ez dakigu zertaz ari zaren, hor ez da inor esertzen.



—Utzi txorakeriak! Ziur konturatu zaretela, azkenaldian, irakasleek ez-ikusi egiten dizuetela zuei ere. Ulertzen duzue zergatik egin dugun?

—Agian, Gobernuak bidali dizuen froga delako?

—Atzean esertzen den mutil horrek ikasturte osoa darama “existitu” gabe. Zuen txantxak hainbat irakasle izutu ditu eta beste askok ez dute batere gogoko. Guk zuei egindakoa ez bazaizue gustatu, imajina ezazue gauza bera egunero sufritu behar izatea, astez aste, hilero, urte guztian zehar. Orain, mesedez, azaldu zer gertatzen ari den edo zigor zorrotzagoak egongo dira.

Ikasleok oso urduri geunden, ez genuen hitz egin nahi. Baina inguruan genuen irakasle taldeak erantzun logiko eta berehalakoa entzun nahi zuen. Eta egia kontatzen hasi ginen.

—Esan didate, apirilean, nagusiek txantxa bat egin ziotela ikaskide bati; existituko ez balitz bezala jokatu zuten.

—Hil batzuetan txantxarekin jarraitu zutela uste dut. Eta udako oporretan ahaztu egingo zitzaizela uste zuten.

—Hurrengo ikasturtean, mutilak kurtsoa errepikatu egin zuen, eta inork ez daki nola, baina urte horretako taldeak ere txantxarekin jarraitu zuen.

—Jendeak ikasturte guztietan esaten zuen *mamua* zegoela euren gelan.

—Mutil gaixoak ez zuen inoiz jakin errepikatzen ari zela, ez zuelako ezer egiten irakasgaietan. Ezagutzen zuten irakasleek ere ez zioten lagundu.

Istorio horrek harritu egin gintuen, ez genuen ezagutzen. Talde batek egindako jazarpena besterik ez zela pentsatzen genuen, baina ez.

—Mamuari laguntzeko denbora egon da, izan ere, duela lau urte baino gehiago hasi zen dena. Errudunak garela esaten digute, baina tradizio hau ez da berria. Errua guztiona da: ikasle nagusia, ikasle gazteena eta irakasleena.

Irakasleak ere konturatuko ziren arrazoia genuela. Errua haiena ere bazen. Guk jada institutuan ez zegoen jendeak eragindakoa jarraitu genion. Hala ere, ez genuen errudun gehiago bilatu nahi izan, eta egun horretatik aurrera, Itzalekin, mamuaren izena, gehiago hitz egiten hasi ginen.

DALTONIKOA

Erika Jabbar
Ikasbide HLBHIP

Begiak ireki ditut. Airea freskoegia da, milaka menda-hosto nire biriketan lehertuko balira bezala sentitzen dut. Hotz handia daukat eta arraro sentitzen naiz. **Arnasa hartuz**, atzamarrak mugitzen ditut poliki-poliki. Non nago?

Txori bat ziztu bizian pasatu da nire begien aurretik, baina nire arreta beste gauza batek erakarri du. Gauza biribil batek, edo hobeto esanda, pilota arrosa fosforito batek. Pixkanaka-pixkanaka, pilota hurbiltzen hasi dela nabaritu dut, eta etzanda nagoela ohartu naiz. Atzamarrak arinago mugitu eta indar handiarekin eskuen artera jausi da. Ia mina eragin dit. Interesez begiratu diot: biribila, deigarria eta astuna da. Pilota nire hatzen artean estutu dut. Ez dakit non nagoen eta dena nahasgarria da. **Berriro hartu dut airea**; nire birikak fresko sentitzen ditut. **Hartu, bota. Hartu, bota.** Eta begira geratu naiz. Pilota. Bota egin nahi dut. **Bota. Bota. Bota.** Besterik ez dut nahi. Orduan, bota, eta pilotak airean dantzatu du segundo batzuek, betierekoak iruditu zaizkidanak. Haize-bolada batek nire aurpegia jo du, eta begiak hainbat aldiz kliskatu ondoren, objektua urrutian ikusteko gai naiz. Ilargi betea ematen du zeruaren erdian. Ikaratu egin naiz orkatiletan kilimak sentitu ditudanean, norbaitek aire izoztuarekin putz egin izan balu bezala. Beste haize-korronte hotz bat. Aurpegian musu bat eman dit, eta nire masailak gorritu egin dira. Ez dut ulertzen nola egiten duen hainbesteko hotza; zerua urdin dago. **Arnasa hartu** eta erlaxatu egin

naiz. Batzuetan, nire bizitzan gertatzen den zerbaiti buruzko zalantzak ditudanean, naturari begiratu besterik ez dut egin behar dena ulertzeko. Historia errepikatu egin da. Beti egiten da. Eta natura ikusten dudanean, neure buruari begiratzen diot, ni natura naizelako, eta horrek nire arazo guztien konponbidea beste ikuspegi batetik islatzen duelako.

Isiltasuna erabatekoa da. Haizeak aurrera jarraitzen du, eta sentsazio arraro bat sentitu dut. Atzamarrak mugitu ditut. Berrero kliskatu ditut begiak, baina ziztatu egiten didate. Orain eserita nago, eta norbait orkatilak miazkatzen ariko balitz bezala sentitzen naiz. Denbora aurrera doa, eta ezpainak hozkatzearen, zerbaitez konturatu naiz. Gogoan dut duela segundo batzuk pilota arrosa bota nuela, eta, albora begirata, bolarekin topo egin dute nire begiek. Beste txori bat nire buruaren gainean. Eta, berehala, su hartu izan balute bezala nabaritzen ditut begiak berrero ere. Are gehiago, azkura daukadanez, pilota alde batera utzita, begiak eskuakin igurtzi ditut. Oihu bat entzun da. Nirea uste dut. **Mina.** Begiak irakiten egongo balira bezala sentitzen ditut. **Mina. Mina. Mina. Arnasa hartu, bota.** Indar handiagoa egiten dut lasaitasuna mina baino handiagoa izan dadin. Baina alferrik. Aurpegitik eskuak kentzen ditudanean, zeruaren kolore urdin iluna besterik ez dut ikusten. Berandu egin da. Ez nago seguru, baina, agian, malko bat jausi da nire masailetik behera. Eta, orain ia ezer ikusi ezin dudan arren, seguru sentitzen naiz zeruaren besoetan. Momentu honetan dudan gauza bakarra. Ezin hobeto ikusten dudan gauza bakarra.


Haize-bolada bat pasatu da berrero nire aurpegitik eta izutu egin naiz. Zerbait arraroa gertatzen ari da. Horretaz seguru nago, bai. Begietako mina areagotu egin denez gero, ezinezkoa da eurak irekitzea. Hori dela eta, entzuten dudan isiltasunean, landa-usaina duen biriketako freskotasuna, nire aho lehorra, begietako etengabeko mina eta orkatiletan kilimak sentitzen ditut orain. Eta oroitzapen bat. Eserita nagoela uste dut. Ez, eserita nago. Eta, denbora horretan guztian, oinak miazkatzen ariko balira bezala sentitu naiz. Baina, oraingoan, hoztuta ez dudana atal bakarra da. Beraz, hemen egon naizen bitartean, inoiz egin ez dudana egin dut: begiak zailtasunez ireki eta behera begiratu. **Airea hartu dut.** Ez dakit non gertatu den eztanda gogorra, nire garrasian edo buruan. **Soltatu dut.** Hobeto ikusteko begiak hiru aldiz jarraian kliskatu ditudanean, ohartu naiz orkatilak inguratzen dituen putzu gorri batez inguratuta nagoela. **Ezin dut arnasa gehiago hartu. Beldur naiz.** Eta hotz handia dut. Esuak marruskatzen ditut bero bila, baina gorri daudela ikusten dut. Lurra bezain gorri. Eta berrero konturatu naiz. Nire begiak. Oh, Jainkoa, nire begiak! Ukitu egiten ditut, baina ezin diot negar egiteari utzi. Ez dira malkoak... Beldur naiz, galduta sentitzen naiz, eta badakit zerbait gaizki doala. Berrero ere, uste dut naturak seinaleak agindu dizkidala; beste haize-bolada bat sentitu dudalako nire aurpegian jotzen. Zer da? Ez dirudi haize arrunta denik, zerbaitek sortua baizik. Negar-zotinak dira soinu bakarra hemen. Esku bat jarri dut lurrean eserita nagoen aldean, eta gauza biribila, deigarria eta astuna sentitu dut nire eskuaren kontra. **Pilota!** Oso gutxi ikusten dut, baina badakit oraindik arrosa dela, eta berari heldu diot. **Negarra. Arnasketa lasaitzekotan nago** eta eskuak hotzagatik dardarka ditut, baretu ezinda. Tripako eta eztarriko min handia dut. Dagoeneko ez dut menda leherkorra nire biriketan sentitzen; baizik eta aire beroa.

Urratzailea, ezin baitut normaltasunez arnasa hartu. Beraz, nire larritasuna uxatzeko ahaleginean, ondoan dudan pilota arrosa fosforitoa hartu eta nire frustrazio guztiarekin estutuz, haserre-bola bat sortu dut, nire bola bezain deigarria, eta, hala, negarra eta garrasiarekin bat egin du. Orain badakit zergatik egiten didaten orkatilek kili-kili; eta badakit, nire azkura biziagotu egiten dela. Horren ondorioz, pilotak indar beldurgarriarekin hegan egin du nire eskutik. Arnasa hartu dut. Azken haize-bolada batek aurpegia inguratu dit eta zerbait eman diodala uste dut. **Arnasa soltatzen dut.** Beltz ikusten dut. Ez urdin. Ez gorri. Agian zorabiatu egin naiz. Eta horixe gertatzen da. **Airea askatu,** listua edan eta atsedena.

Isiltasuna. Bihotzaren taupadak baino ez ditut entzuten. Pum, pum. Pum, pum. Motela, lasaia eta osasuntsua da. Erabat gaztea. **Arnasketa etengabea da.** Pum, pum. **Airea hartu dut.** Pum, pum. **Askatu.** Pum, Pum. Begiak itxita ditut. Pum, pum. Ireki egin ditut. Hotzak nire masailaren kontra talka egiten duenean, bizirik sentitzen naiz berriro. Bitxia da, naturak bakarrik, bere neurrira, hobeto sentiarazten nauela. Mundu errealeko inor han sartu gabe, neure buruan gauzak argiagoak eta sinpleagoak dira. Nire ingurura begiratu dut. Hiria nire aurrean zabaldu da. Gaueko hamaikak izango direla kalkulatu dut. Ezin dut sinetsi zenbat denboran geratu naizen belar berdean eserita, hiri eder bateko begiratokian. Lo geratu naizela uste dut. Oreak orkatilak masajeatu egiten ditu, nire ametsean bezala, eta nire zigarroak askatzen duen keak, ia bukatuta, **nire birikak lehertu egiten dituela nabaritu dut.** Ez dut uste nire adinean erretzea ideia ona denik. Nerabe bat baino ez naiz, ume bat. Baina itzali egiten du nire buruaren zarata. Horra hor etengabeko isiltasuna. Telefonoa begiratu dut. Hiriko argietatik aparte dagoen argi bakarra. **Orain dudan gauza bakarra.** Gurasoen dei galduez, erantzun gabeko mezuez eta tristeziak beteta dagoela ikusi dut. Zoritxarrez, berandu da. Lagunduko didatela uste dute, baina ito egin naiz. Ez dut ahazten amestu dudan orkatiletako odola. Baliteke nire aurpegira iritsi izana, likido bero eta nahasgarria. Agian, *horregatik ezin dut gehiago arnasa egin.* Amaituta nagoelako. Agian horregatik botatzen nuen pilota astuna nire lekutik urrun, ametsean, **ni naizelako pilota arrosa hori;** eta subkontzienteak ez zuenez hori onartzen, pilota urrun botatzen nuen. Eta, agian, izan liteke azkenean **zerbaiti ematea.** **Begiak puztuta eta gorrituta,** zigarroari esker, urruneko puntu batera begira jarri naiz. **Hildako hegazti bat dago.** Segur aski, auto batek harrapatu zuen, edo, besterik gabe, naturak harrapatu zuen. Nire ametsetakoaren berdina da. **Hegalen haizeak, orain txikituta, nire aurpegia etengabe kolpatzen zuen.** Eta nire eskua da erruduna, ametsean bola indarrez jaurti zuena. Hau da, lotan egin dudana bezala, hegaztiari bizia kendu diot. Eta errealitatean, nire bizitza besterik ez dut hil. Neure burua hil dut. **Arnasa hartu dut berriz.** Horretan pentsatzen dudanean, hotz naiz. **Eta soltatu egiten dut.** Batzuetan, nire mundura noa eta ez dakit nola bueltatu errealitatera. Asko pentsatzen dut. Gehiegi. Eta hori arazo handia izan da nire bizitzan. Horregatik, arnasa hartzeko ohitura hartu dut, nire amesgaiztoak irabazten didatenean kontrolatzeko. Denborarekin konturatzen zara, ni bezalakoa izanez gero, **zure mundua etxe atsegin dela, baina itogarria.** Konturatzen ez bazara, harrapatuta egongo zara, eta ez duzu izango mundu errealera itzultzeko modurik, momentu horretarako ez zarelako izango errealitate horren parte. Eta

horrela, naturari esker ulertu ditut berriro nire arazoak, gizakian, txorian, haizean, belarrean, hotzean eta zentzumenetan oinarritutakoak. Azkenean, konturatu naiz daltonikoa-edo antzeko zerbait naizela: nire munduan dena zuzen ikusi dut, eta benetako munduan okerra da.

Arnasa hartu, bota. Arnasa hartu eta soltatu.



AMETSEN EGUNKARIA

Eric Jiménez Méndez
San Inazio BHI

A mets naiz, hamabi urteko mutil arrunta. DBHn hasi nintzenetik, galdera asko etorri zaizkit burura: zer egin dut nik hau merezi izateko? Zergatik iraintzen naute, bai fisikoki, bai hitzekin, ez badiet ezer egin? Zergatik irakasleek, ikasleek egiten didatena ikustean, ez dute ezer egiten? Eta zergatik ez diet gurasoei gertatzen zaidana kontatzen? Galdera horiek guztiak etortzen zaizkit burura, eta gero eta gehiago errepikatzen dira. Baina inoiz ezin diet erantzunik eman.

“Joan zaitez hemendik, maritxu, eta zerbaitetarako balioko duzu horrela!”. “Ni zu izango banintz, neure buruaz beste egingo nuke. Ea mesede hori egiten diguzun!”. Esaldi horiek eta gehiago, askoz gehiago, entzuten ditut egunero. Eskola erdian, patioan, bazkalorduan, eskolatik ateratzean... Eta neure buruan jarraitzen dute, etengabe, egun osoan.

Nire kasua beste askori ere gertatzen zaie, bai Bilbon, bai mundu osoan zehar ere. Hori bidegabekeria da. Bizitza, orokorrean, bidegabekeriaz beteta dago. Haiek gainditzea oso zaila da. Ezin diet gurasoei eskolan dauzkadan arazoak kontatu ere egin. Gezurra esaten diet.

—Kaixo, Amets! Zelan ikastolan? —galdetu zidan Aitak atzo, eskolaren ondoren, etxera bueltatu nintzenean.

—Ondo —erantzun nuen.

—Ziur al zaude? Ez baitirudi —jarraitu zuen amak.

—Ondo nagoela esan dut! Utz nazazu bakean! —oihukatu nuen, eta nire logelara abiatu nintzen, korrika.


Ez dakit zergatik egiten dudan hori. Ezin dut ulertu. Gurasoei guztia kontatuko banie, zerbait egingo lukete, eta, azkenean, amesgaizto hau bukatuko litzateke. Baina gerta daitekeenaren beldur naiz. Ezin dut. Gainera, ez dut lagunik... Ezin dut gehiago... Bakarrik nago, inork ezin dit lagundu... Ala bai?

Bai, badago norbait, badaukat lagun bat, egunero, nire logelan itxaroten didana. Hari kontatu ahal dizkiot nire arazoak, egunean zehar gertatzen zaidana, nola sentitzen naizen, eta gehiago, askoz ere gehiago... Egunero, ikastolatik bueltatzen naizenean, logelara joaten naiz, bolaluma hartu eta, egunkarian, nire esperientziak idazten ditut.

Izan ere, nire ustez, norbaiti edo zerbaiti bizipenak kontatu ahal badizkiozu, horixe da benetako laguna izatea.



Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo



MIKOLETA

BILBAO BALIOEN HIRIA

C eta D kategoriak




EUSKAL IKURRAREN SALBATZAILEA

Elene Uriguen Etxebarria
Deustuko Ikastola IPI

13 urteko bi lagun, Milagros eta Martina, Arrietan bizi ziren. Gernikako merkatura joaten ziren astelehenero, euren baserrietako produktuak saltzera.

1937ko apirilaren 26an burrunba izugarria entzun zuten zeruan, Gernikarako bidean zihoazela. Ez zekiten zehatz-mehatz zarata hori nondik zetorren; eta denbora



igaro ahala, gero eta ozenago entzuten zen. Bat-batean, zerura begiratu, eta hegazkin arraro bat ikusi zuten euren buruaren gainetik igarotzen. Hegazkin txiki hura Gernikara zihoala zirudien. Ez zen, ordea, hegazkin bakarra, bere atzetik beste hiru baitzetozen ilaran.

Ikaratuta, errepidetik ikusten zen txabola batera joatea erabaki zuten. Etxola hartara iritsi baino lehen, hizkuntza arrotzean hitz egiten zuten bi gizon entzun zituzten. Arineketan, sasien atzean ezkutatu ziren, gizonok ohartu baino lehen. Uniformedunak hegazkinei argiaz seinaleak egiten ari zirela konturatu ziren Martina eta Milagros gazteak. Segidan, hirugarren gizon bat entzun zuten gaztelaniaz hizketan, ondorengo zioela:

—Para que las bombas caigan mañana en el árbol de Gernika, tenéis que señalar mejor el sitio exacto con este foco.

Milagros eta Martina orduan konturatu ziren atzerritar horien helburua Euskal Herriaren ikurra suntsitzea zela. Eta, hori gerta ez zedin, norbaiti abisatu behar ziotela erabaki zuten. Abisua emateko asmoz lurretik altxatu eta errepiderantz korrika hasi zirenean, pistola zeraman gizon batekin egin zuten topo.

—¿Qué hacéis aquí niñas? Es de muy mala educación vigilar a escondidas.

—¡Señor, señor! Esos hombres que están en la txabola quieren destruir el árbol de Gernika, ¡ayúdenos por favor!

—¡Aaahhh!, ¿cómo?, ¡ni hablar!, ¡soy Policía y yo lo evitaré!, pero antes, tranquilas, os voy a llevar a un lugar seguro, parecen peligrosos.

Une hartan auto batean sartu, eta herritik kanpo zegoen baserri zahar batera eramane zituen. Martinak eta Milagrosek ez zuten ezer ulertzen. Haien ustez, benetako polizia bazen, komisaldegira joatea litzateke egokiena.

Etxeko atea zabaldu, eta hantxe zeuden txabolan ikusitako bi atzerritarrak. Ustez polizia zenak pistola atera, eta gela ilun batera sartzeko agindua eman zien neskei. Bertan, gatibu zegoen herriko emakume batekin elkartu ziren.

—Zer egiten duzue zuek hemen? —galdetu zien.

—Entzun dugu alemaniarrek eta Frankok Gernikako zuhaitza suntsitu nahi dutela, eta uniformedun pertsona hauek bahitu eta etxe honetan giltzapetu gaituzte! Herria bihar bertan bonbardatzeko asmoa dute, eta ezin diogu inori abisatu! Hemendik atera behar dugu, derrigor. Entzun diegu 40 hegazkinek baino gehiagok jaurtiko dituztela bonbak!

—Bai, nik ere izan dut gaizkile hauen planen berri. Nire landetako txabolan nengoela, bahitu egin ninduten, eta hemen naukate ordutik gatibu. Ez ditu inork gure zaratak entzungo horma lodi hauekin. Gureak egin du! Gure herria eta euskaldunon ikurra suntsituko dute!

—Aukeraren bat egon behar du! —esan zuen Martinak, eta gela guztia arakatzen hasi zen.


—Baina ez dago leihorik, eta ezin dezakegu atea apurtu. Gainera, oihu egin dut lehen, baina errieta egin didate hormaz bestaldeko gizonak —esan zuen andreak.

Milagros gelaren albo batera hurreratu zen, eta hoditxo bat zegoela ikusi zuen. Pentsatu zuen, agian, ura kanporatzeko balio zuela. Dena den, argi eta garbi zegoen hodi horretatik ezin zela pertsona bat sartu, nahiz eta umea izan. Aukera bakarra mezu bat bidaltzea izango zela pentsatu zuen.

—Badakit zer egingo dugun! —esan zuen Milagrosek.

—Martina, kendu ezazu buruko zapia! Nik ere nirea kenduko dut. Emakume, zeuk ere erantsi zeure zapia, galtzerdiak eta kuleroak. Hiruron arropak batuz, oihal luze bat egingo dugu, eta muturrean nire kamiseta lotuko dugu. Bertan mezu bat idatziko dugu, oihala jasotzen duenak irakur dezan. Ea zortea daukagun, eta kanpoko norbaitek ikusten duen! —jarraitu zuen.

Hurrengo idatzi zuen kamisetan: “S.O.S! Gernikako arbola bonbardatuko dute bihar eguerdiko 12:00etan! Militarrek hilerriaren alboko txabolan daude, argi handi batekin hegazkinen bonbak bideratzeko. Abisatu poliziari eta herritarrei!”.




—Eskerrak, Milagros, azokako erosketen kalkuluak egiteko boligrafoa ekarri duzula —esan zion Martinak irribarre urduri batekin.

Mezua hoditik igaro eta itxarotea besterik ez zuten: orduak eta orduak pasatu ziren. Gaua ere joan zen.

Biharamunean ez zen zaratarik entzuten gelaren beste aldean. Neskek pentsatu zuten, beharbada, gizonak hegazkinak bideratzera joan zirela. Hirurak negarrez hasi ziren. Eguerdiko 12:00etan burrunba itzelak entzun zituzten. Hegazkinen zarata lehenengo, eta zarata gogorragoa ondoren, bonbena, hain zuzen. Ondoren jendea garrasika eta negarrez entzuten zen. Lurrikara batzuk ere igarri zituzten. Ene ama! Bat-batean kez bete zen gela bera.

Eztanda izugarrien ondorioz, etxeko hormak etengabe mugitu ziren, gelako atea apurtzeraino.



Hori ikusita, hirurak korrika irten ziren etxe hartatik. Herri guztia suntsituta zegoen, eta animalien eta pertsonen zatiak edonon. Anbulantziak eta polizien autoak zebiltzan. Martina eta Milagros, ikaraturik, Arrietako biderantz abiatu ziren. Orduantxe konturatu ziren herriko alkatea eta agintariak beraiei itxaroten zeudela. Ez zuten ezer ulertzen. Lotsatuta burua jaitsi zuten, eta orduan alkateak zera esan zien:

—Ikusten duzueenez, gure herria suntsitu dute, eta jende asko hil da. Hala ere, zuei esker lortu dugu Euskal Herriko ikurra den Gernikako arbola salbatzea! Franko madarikatuak ez du lortu zuhaitza suntsitzea! Kandido esne-saltzaileak hodi batetik ateratako oihal bat ekarri zigun atzo. Bertan mezu bat zegoen idatzita, eta horri esker lortu dugu txabolan zeuden bi alemaniarrek atxilotzea. Mila esker! Herri honek ez du inoiz ahaztuko zuen ausardia!

Milagros alkatearen alboan zegoen gizonari begira geratu zen; horixe zen antza Kandido esne-saltzailea. Ederra zela iruditu zitzaion. Urte batzuk geroago, maitemindu eta berarekin ezkondu zen herriko eleizan.

Ipuin hau nire birramama (Milagros) eta nire birraititaren (Kandido) omenez idatzi dut, Gernikako bonbardaketa gertatu zenean, haren lekuko izan zirelako.



BURUNDIKO UMEA

Zuriñe Bergaz Garay
Artxandape Ikastola HLBHIP

2013ko abuztuaren 2a

Kaixo, hau nik bizitako istorioa da:

Orain 10 urte gertatu zen, Burundin. Dena nire etxean hasi zen, hemen, Durangoko etxetxo alai batean, 2012ko ekainaren 6an. Mugikorrean iragarki bat atara zitzaidan, horrela zioen: “Jendeari lagundu nahi diozu? Etorri Burundira, eta eskertuko dizugu!”

Iragarkia oso interesgarria iruditu zitzaidan, izan ere, bertan irakaslea izateko aukera izango nuen. Pare bat egun egin nituen horri bueltaka, joan edo ez joan erabakitzeko. Alde batetik, gogo handia nuen joateko, hango jendeari lagundu eta haiengandik ikasteko. Baina, bestetik, beldurra ematen zidan, ez nekielako zer aurkituko nuen. Gurasoekin hitz egin ondoren, joatea erabaki nuen.

Bost egun geroago bertan nintzen, ume askoren aurrean, den-denen begiak nigan pausatuta zeudela. Urduri nengoen, ez nekien zer egin, zer esan. Halako batean, emakume heldu bat etorri zen niregana, eta berarekin joateko keinuak egin

zizkidan. Etxe zahar eta hondatu batean sartu ninduen, eta bakarrik utzi ninduen. Etxeak, logela, komuna eta sukaldea zituen, bizitzeko behar zena bakarrik, ez gehiagorik, ez gutxiagorik. Burundiko etxeetan, ordea, ez zegoen halakorik. Dena gela handi batean egoten zen; areago, normalean, hango familiek 5 ume izaten zituzten, beraz, denek elkarren ondoan lo egin behar izaten zuten.

Hurrengo egunean lanera joan nintzen. Eskola urrun samar zegoen eta berandu heldu nintzen; baina lehen eguna zenez, ez zidaten ezer esan. Klasera sartu eta neure burua aurkeztu nuen; eta haiei izenak galdetu ostean, eskola ematen hasi nintzen. Etxera beste bide batetik bueltatzea bururatu zitzaidan, motzagoa omen zen. Bide erdian etxe bat zegoen, eta apur bat urrunago nirekin hizketan hasi zen ume bat. Ez zuen oso ondo hitz egiten, baina ulertzen nion zer esan zuen. Umea oso alaia eta irribarretsua zen. Ilundu baino lehen, agurtu eta etxerako bidea hartu nuen.

Hurrengo egunetan ere ikusi nuen, nire zain egoten zen. Lurrean eseri eta berarekin hitz egiten nuen. Bitxikeriak kontatzen nizkion, eta Abdul, harrituta, beste bat entzuteko zain geratzen zen. Gau batean, ezin loak hartu nengoela, ideia bat bururatu zitzaidan: eta Abduli gauzak irakasten badizkiot? Asko gustatzen zitzaion ikastea. Beraz, eskolako beste irakasleak konturatu gabe, liburu batzuk eramanez nizkion. Asteak eman genituen horrela, eta ni pozik nengoen Abdul ikasten ari zela ikusita. Baina, egun batean, aita Abdul bilatzen zebilela entzun nuen, eta berarekin joateko esan nion. Ezetz esan zuen; baina, azkenean, aitak aurkitu egin gintuen. Oso haserre zegoen, eta alde egiteko eskatu zidan. Ezer ulertu gabe, joan egin nintzen.

Lau egun geroago, Abdul bisitatzea erabaki nuen, eta berarekin gauzak argitzea.

—Zergatik zegoen hain haserre zure aita?

—Ni eta zu ikasi lehen gauza bat apurtu nuen —oraindik kosta egiten zitzaion ondo hitz egitea.

—Ondo da, baina badakizu lagunak garela, beraz, ezer gertatzen bazaizu, esan, ados?

Abdulek “ados” huts batekin erantzun zuen.

Joan egin nintzen, baina, joaten ari nintzenean, garrasi batzuk entzun nituen: Abdul zen. Korrika bueltatu nintzen. Abdul lurrean zegoen, bakarrik, laban bat tripan sartuta zuela. Guztiz odoleztatuta zegoen. Ez zegoen beste inor, Abdul eta biok bakarrik. Anbulantziari deitu nion, baina ez ziren garaiz etorri. Blokeatuta nengoen, izan ere, berarekin geratu izan banintz, Abdul oraindik bizirik egongo zatekeen.

Etxera joan, eta ezer afaldu gabe, ohera sartu eta negarrez hasi nintzen. Hurrengo egunean ez nintzen eskolara joan, ezin nuen. Zergatik egin omen zuen hori, eta nork? Bere aitak? Bai, haserre zegoen, baina ez nuen pentsatzen egingo zuenik.

ANE

Kaixo, gertatzea nahi ez nuen istorioa da hau:

Arratsaldea zen, Abdul, beti bezala, bere ezkutalekura joan zen. Bertan bi kuxin zahar zituen. Familiarengandik deskonektatzeko momentua heldu zitzaion. Neskato bat pasatu zen ondotik. Berarekin hitz egiten hasi zen. Galduta zirudien, beraz, nondik joan behar zuen azaldu zion. Abdulek pozik zegoen itxurak egin zituen, baina neskarekin hitz egin zuenean, orduan egon zen benetan pozik. Neska hark familia ahaztea eragin zion, berarekin egon zen momentuan behintzat.

Hurrengo egunean berriro joan zen bere ezkutalekura. Abdul urduri zegoen, ea neskatoa etorriko ote zen jakin gabe. Azkenean etorri zen, eta Abdulek eta Anek elkarri bitxikeriak kontatu zizkioten.

Ane joan egin zen, eta Abduli etxera bueltatzeko momentua heldu zitzaion.

Aita ate aurrean zuen zain, haserre; eta horrela esan zion garrasika:

—Bada garaia, ezta? Ez dut nahi inorekin egotea, entzun? Ikusten bazaitut, ikusiko duzu!

Abdulek ez zuen inoiz erantzuten. Beldurra zion. Askotan, edanda etortzen zen etxera eta dena hondatzen zuen, edo bere seme edo alabaren bat jotzen zuen. Abdulek bazekien, edozein momentutan, etxe horretatik ihes egingo zutela.

Anek liburuak ekartzen zizkion eta Abdul asko pozten zen, baina etxera joan zenean, ezkutatu egin behar izaten zituen. Kolpez beteta zuen gorputza estaltzen zuen.

Behin, ezkutalekura joan zen. Ane lehenago heldu zen, eta han zegoen bere zain. Abdulek, bere aita ahaztu nahian, Anek azaltzen ziona ulertzeko ahalegina egiten zuen. Baina ezin izan zuen aita asko ahaztu, han azaldu baitzen, eta oso haserre, gainera. Abdul handik eraman eta bere aitak liburuak aurkitu zituen. Askok haserretu zen eta Abdul jo zuen, mutikoa lurrean bota zuen arte.


Kalera irteten utzi zionean, Aneri itxaroterat joan zen, baina ez zen azaldu. Arratsalde osoa eman zuen han. Abdulek ezin zuen gehiago jasan eta negarrez hasi zen. Ez zen inoiz eskolara joan. Ez zuen inoiz lagunik eduki, Ane izan zen bakarra. Abdulek, amorruari ezin eutsita, garrasi handi bat egin zuen. Beste 3 arratsalde eman zituen horrela; baina laugarren egunean, esperantzarik ez zuenean, Ane agertu zitzaion. Askok poztu zen eta besarkada handi bat eman zion. Abdulek dena azaldu nahi zion, baina ezin zuen, bazekielako dena kontatuz gero, aitak berriro joko zuela.

Azkenean, bakoitza bere etxera joan zen. Abdul etxera sartu zenean, aita aurkitu zuen, edanda, eta hau esan zuen:

—Berriro putakume horrekin! Esan dizut ez dudala nahi zu inorekin egoterik!
—esan zion aitak, azkar-azkar etxera sartzen zen bitartean.

Abdul asko beldurtu zen. Handik ihes egin nahi izan zuen, aita etxetik laban batekin ateratzen ari zela ikusterakoan. Aitak Abduli labana sartu zion tripan; eta zer egin zuen konturatzerakoan, etxeko guztia batu eta familia osoa handik eraman zuen.

Orduan, ni agertu nintzen. Abdul eraman nuen, Ane Abdulen gainean negarrez zegoen bitartean. Hainbatetan hurbil egon naiz, Abdulengandik hurbil, bere aitak ematen zizkion jipoiak direla eta. Oraingoan ezin izan nuen salbatu.



Askotan eramaten dut egoera honetan dagoen jendea. Ez dut nahi izaten, baina ezin izaten dut ezer egin; zuek bai, ordea.

HERIOTZA

Aurkibidea

Sariak	4
--------------	---

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Rositaren bidaia	9
• Herriaren bihotza	13
• Aitonaren sekretua	15
• Askatasuna nahi zuen balea	18
• Amets baten bila	20

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

• Jon eta zuhaitz miragarria	25
• Deabruen mendiko misterioa	28
• Zerotik hasten	33
• Lau errugabeen misterioa	36
• Gauzak aldatzeko ordua	39
• Elkanoren ileordea	41

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

• Hegan egin nahi zuen umea	45
• Arrasto urdinxka	49
• Bizitzaren sekretuak	52
• Elur malutak	56
• Bilboko ontziolen sekretua	58

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Eta ez bazaude?	63
• Artez betetako hilketa	65
• Mamutzat hartu naute	69
• Daltonikoa	73
• Ametsen egunkaria	77

MIKOLETA - BILBAO BALIOEN HIRIA

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak):

• Euskal ikurraren salbatzailea	81
---	----

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

• Burundiko umea	85
----------------------------	----

Miy
Shakoleta
Miy
Shakoleta
Miy
Shakoleta
Miy
Shakoleta
Miy
Shakoleta
Miy
Shakoleta
Miy
Shakoleta
Miy
Shakoleta



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

